



JOSUNE MUÑOZ

«Objektibitatea da emakumeok desautorizatze- ko erabiltzen duten tresna»



**Euskaldunak Amerikako
independentzietan**
Zanpatzaileak, askatzaileak,
oportunistak

- **Euskara elkarteak**
Nondik tira asmatzeko jardunaldiak
- **Ihesi** Irati Jimenez Urdaibai
- **MCC** Dibidenduak jaitsi edo ez
erabakiko dute martxoko kongresuan
- **Julen Zulaika, Askapena:**
«Asel Luzarragari aplikatu dioten lege
antiterrorista Pinocheten garaikoa da»

EUSKAL OROIGARRIA

MAKILA

eskaintza berezia



- Opari berezietarako
- Pertsonalizatuak
- Prezio aukera desberdinak
- Iñaki Alberdik eginak



 **argia**



Informazio gehiago nahi baduzu: **ARGIA**

Industrialdea 15 • 142 P.K.

LASARTE-ORIA 20160

Telefona 943 37 15 45

posta-e: denda@argia.com

<http://www.argia.com/makilak.htdocs>

- 4 Deabruaren abokatua: Andrea Arrizabalaga.**
Sustrai Colina.

Gaiak

- 15 Marta Saloña, entomologoa: "Eulirik gabe zaborraz inguratuta biziko ginatke".** Unai Brea.

Iritziak

- 17 Gora Pro Nobis.** Asisko Urmeneta.
18 Ttakun (h)errenka. Uhartedian. Ixiar Rozas.
19 Malgusegurtasuna: malgu eta segur?
Gorka Moreno Márquez.
Laporta. Joxemari Ostolaza.
20 Sherezade. Joxemari Carrere.
Autobiografia. Edu Zelaieta.
21 Zirtak. Salinger-en bidea. Patxi Zubizarreta.
22 Bertso berriak. Animo Haiti! Aitor Albistur.

Erdiko kaiera

- 26 Liburuak.** Xabier Etxaniz Erle.
27 Diskoak. Iker Barandiaran.
28 Ezpalak. Jon Torner.
29 Abarrak. Unai Brea.
30 Denbora-pasak. Ana Zambrano eta Kike Amonarriz.
32 Ihesi: Urdaibai (Bizkaia).
Bihotzgoran, bihotzberan, bihotzferan. Irati Jimenez.
36 Zientzia eta teknologia. Joxerra Aizpurua.
37 Landareak. Jakoba Errekondo.
38 Denboraren makina. Nagore Irazustabarrena.



Urdaibai.

Termometroa

- 39 Julen Zulaika: "Maputxeekin harremanak galarazi nahi ditu Txileko Gobernuak".**
Mikel Asurmendi.
42 Mondragon taldea. Dibidenduak murrizteko unea?
Daniel Udalaiz.
44 Euskara elkarteak. Urte eta erdiko hausnarketa abiatu da. Onintza Irureta.
46 Bero-beroan. Juan Mari Arregi, Onintza Irureta eta Xabier Letona.

5 Amerikako independentziak

200 urte dira Espainiak Amerikan zituen koloniek independentzia prozesua hasi zutela. Euskaldunek zuzenean parte hartu zuten gertakari horretan: zapaltzaile gisa, askatzaile gisa... Oscar Alvarez, Xabier Irujo eta Joseba Agirreazkuenagaren artikulu banak, denboran atzera egin eta euskaldunen jokabide horiek aztertzen dituzte.



23| Bilboko rockaren historia

Iker Barandiaran

48| Net Hurbil

Pello Zubiria

50| Azkena

Kike Diez de Ultzurrun

10| Josune Muñoz | Uxue Alberdi

Dokumentazio gune, liburutegi eta bilgune den Skolastikan, emakumeak eta literatura –eta azken urteotan komikiak– aztergai ditu Muñozek. Emakumeei buruzko estereotipo eta kanonez aritu zaigu.



Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Joxe Mari Irazusta. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Erredakzioa: Urko Apaolaza, Mikel Asurmendi, Gorka Bereziartua, Unai Brea, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Garbine Ubeda. Argazkilaria: Dani Blanco. Produkzioa: ANTZA, S.A.L. Argia.com: Lander Arbelaiz, Axier Lopez, Jon Torner.

Kudeatzailea: Berdaitz Goia. Salmenta Burua: Bego Zuza. Harpidetzak: Olatz Korta. Idazkaritza Teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3 eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: 13. P.K. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: Adur Software Productions. S.Koop. Elk. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Iparr Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea da.

Azala: Garbine Ubeda Goikoetxea. Azaleko argazkia: Dani Blanco.



KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua





“Aktualitatea zer den? Piztu telebista eta berehala ikusiko duzu”

Andrea Arrizabalaga | Berrietan berria

Patata tortilla egiten ari zela, Teleberriren iragarkia ikusi, eta gertatzen ari zaiona surrealista iruditu zitzaion.

SUSTRAI COLINA
Argazkia: Iñigo Azkona

Zer moduz aulki elektrikoan?

Teleberriren sintonia entzuten dudanero kalanbre bat edo beste sentitzen dut. Ez diot gure kasuan hala denik, baina eragitekotan, bertso txapelketan aipatu ziren aurkezleen arteko mahai azpiko jolasek eragiten dute elektrizitatea.

Aurpegi ez hain euskaldunen bila hasi eta zu atera zintuzten.

Esaten den guztia sinesten duzu? Ni kazetaria naiz, profesionala, eta uneotan nire ametsa betetzen ari naiz. Julio Ibarra Julio Ibarra da, Lurdes Maldonado Lurdes Maldonado, eta ni Andrea Arrizabalaga, hasiberria.

Zure ametsa betetzen ari zarela?! Freud bizirik balego...

Gure aitak beti egin du lan telebistaren munduan. Zazpi urte nituela, kamera etxera ekarri, logelan telebista moduko bat egin, eta nire lehen albistegia aurkeztu nuen. Horregatik, Teleberrirako proposamena egin zidatenean ez nuen dudarik egin.

Platoko glamourra baino lehen kalearen gorria probatua zara, ordea.

Notizia zegoen tokian egonez izugarri gozatu eta ikasi dut. Jendeak uste du aurkezle izateko modelo edo aktore izan behar dela, baina albistegietan kazetaria ez bazara jai daukazu!

Zirrargarriak dira Bilboko Gran Via-tik, gerrako kazetariak nola, egiten dituzuen zuzeneko konexioak.

Zuzenekoek eskaletari arintasuna, freskotasuna, eta erakargarritasuna ematen dizkiote. Hasiera indartsuarekin eta jendearen iritzia- ren presentziarekin batera, audientzia erakartzeko ezinbesteko amuak dira.

Ez esan Teleberriko aurkezleak ere audientziari begira bizi zarenenik.

Orain gutxi ikasi dut non eta nola begiratu. Ez nau itsutzen, baina ilusioa egiten dit. Dena den, konpetentzia beti egongo da, eta inoiz jendeak Teleberri ikusten ez badu pentsatu nahi dut ez dela nire erruagatik izango.

Konpetentzia? Niri albistegi guztiak berdinak iruditzen zaizkit!

Aktualitatea aktualitatea delako. Aktualitatea zer den? Piztu telebista eta berehala ikusiko duzu.

Telebistak langile baten bizitzak eta Athletice- n entrenamenduak tarte bera merezi dutela dio.

Tarte bera bai, baina tarte desberdinetan. Langilearen heriotza titular nagusi izango da eta Athleticen entrenamendua... Garbi geratu da ez naizela kirolzale amorratua, ezta?

Kontuz zer esaten duzun, zurea aulki elektriko- koa da eta...

Platotik zein kaletik albisteak kontatzen jarraitu nahi dut. Ez daukat perfil politikorik, kazetaria naiz orenen gainetik. ■

Amerikako independentzietan euskaldunek zer?



Chuquisacako (Bolivia) 1809ko maiatzeko iraultza irudikatzen duen murala.

OSCAR ALVAREZ

AUKERA EZIN HOBEA ZEN. 1808tik Espainia erregerik gabe aurkitzen zen; penintsula osoa frantsesen kontrako gerra irekian zegoen eta Ameriketako kolonia espainiarrak, hain urrun egonda, lehen aldiz hiru mendetako menpekotasunaren ostean estatuburuaren agindu zuzenaren falta nabaritzen ari ziren. Madrilen jadanik ez zegoen ez gobernu onarturik ez administrazio eraginkorrik. Gauzak horrela, aginte hutsunea betetzeko behin-behineko gobernu erakundeak (*Juntak*) sortu ziren Amerikaren hiribururik garrantzitsuenetan. Hasiera batean Frantziaren “bahiturik” zegoen Fernando VII.aren izenean eratu baziren ere, laster batzorde horiek independentziarako bidea hartu

zuten. 1810etik 1825era abertzaleek eta erregezaleek gogor borrokatu zuten elkarren aurka kontinente osoan, Mexikotik Txileraino. Azkenean, hamabost urte igaro ondoren, aspaldiko inperio espainiar erraldoitik hondar txiki batzuk baino ez ziren zutik geratu: Kuba, Puerto Rico eta Filipina irlak. Horren lekuan, hogeita bost nazio berrik burujabatasunari ongietorria egin zioten.

Euskaldunak independentzien aurrean zer?

Ikasgelan gai hau azaldu behar dugunean, beti galdera berdina egin ohi da: ea euskaldunek Amerikaren askatasunaren alde ala kontra borrokatu ote zuten. Bai eta ez, erantzun daiteke. Historia inoiz zuri-beltzean idatzi ez

Bi mende pasa dira Espainiako kolonien independentzia prozesua hasi zenetik. Hori dela-eta ospakizun handiak antolatu dituzte Hego Amerikako herrialdeek. Euskaldunek gertakizun horretan izandako parte hartzea ez zen zuri-beltza izan. Hori azaltzeko hiru historialariren lanak bildu ditugu: Oscar Alvarezek sintesi orokorra egin du, Xabier Irujo Bolibarren figuraz mintzo da eta Joseba Agirreazkuenagak kriolloen garrantzia azpimarratu du.

Hego Amerikako independentziak

denez gero. Beste ezer baino lehen, konplexua izan zela onartu behar dugu. Konplexua eta, beraz, interes gehiagokoa.

Alde batetik, euskal abizen ugari aurkitzen dira independentziarako borroka piztu zuten artean. Lucas Alamán, borroka haietan parte hartu zuen politikari mexikarrak, hola-ko baieztapen borobila bota zuen bere *Mexikoren Historian*: “Aipatzekoa da Amerikaren konkistatzaile gehienak Extremadurakoak izan zirela, Badajoz eta Medelingoak, eta inperio espainiarren erorketa gauzatu zutenak, aldiz, euskal probintziatakoak (...) Allenderen aita Bizkaiko Jaurerrian dagoen Gordexola-koa zen, eta Aldama eta Abasolokoak Arabako Okendokoak ziren, Gasteiztik ez oso urrun; eta horri eranstean badiogu Iturbidekoa Nafarroako erreinukoa zela, argi dirudi Espainiako (...) iparraldeko probintziako gizonak Amerika Espainiatik aldentzeko predestinaturik zeudela”. Esan gabe doa Alamánek aipatu pertsonaia horiek guztiak Mexikoko independentziaren bultzatzaile eraginkorrenetakoak izan zirela. Bestalde, Simon Bolibar *askatzailearen* bizitzaz azken bi mendeetan egin biografia guztiek bere familiaren euskal jatorria azpimarratu dute, bai eta gaztetan Bilbon pasa zuen urtea ere (ikus 8. orrialdeko artikulua). 1920ko hamarkadan Segundo Ispizuak idatzi bezala, badi-rudi Amerikan askatasunak “euskal usaina” zuela.

Baina, bestetik, asko izan ziren independentzia gerretan parte hartu zuten euskaldunak; ez Amerikaren burujabetasunaren alde, lur haiek Espainiaren kateetan lotuta mantentzearen alde baizik. Arrazoi ideologikoei ez ezik, testuinguru ekonomikoari ere erreparatu behar zaio. Amerika euskal industriaren produktuentzako merkatu erraldoia zen eta kapitala sortzeko gune ezin aproposagoa gainera; hori gutxi balitz, euskal herritarrek Amerikaren administrazio zibil, eklesiastiko eta militarrean karguak okupatzeko aukera ederra izaten zuten normalean. Kostaldeko euskal probintziatako burdinak, esaterako, monopolioa zuen Amerikan. Amerika burujabe batekin euskal sektore ekonomiko handiak galera ikaragarriak edukitzera kondenaturik zeuden. Esaterako, 1815ean Bizkaiko Aldundia kexu zen “burdinolak, herri honen benetako aberastasuna direnak, lur jota daude Amerikarako esportazioa geldirik dagoelako”. Eta Gipuzkoako olagizonek beste hau salatzen zuten: “Gure burdinolak egonkor mantendu ziren independentzia gerraraino, gure produktuek merkatu

ziurtatua baitzeukaten Ameriketara; (...) baina merkatu haiek galdu direnez geroztik, Itsasoz bestaldeko kolonietan nahasteak hazi direnetik, egoera gero eta larriagoa da”.

Zenbait protagonista

Amerikaren independentziaren historiak hamaika istorio ditu. Gertakizun kolektiboei sarritan pertsona bakar batzuen bizitzetan islada izaten dute. Legenda guztiek —eta independentziak, hein handi batean, legenda bihurtu ziren Amerikaren nazio berrien oroimen historikoan— heroiak behar dituzte: pertsonak, banan-banan, beren izen-abizenekin, aldaketa historikoen pertsonifikazio gisa. Tartean euskaldunak ere baziren, alde bietan.

Buenos Aires, 1809. Azkenengo urteetan gertakizun askok asaldatu dute Hego Amerikako hiriburu horren lasaitasuna. Hasiera batean, armada ingeles batek konkistatzeko saiakera egin zuen, alferrik. Gero Europako albisteak zabaldu zirenean, bertako udalak erregeordea bere kargutik kentzea erabaki zuen —jaiotzez frantsesa zelako, eta beraz, “susmagarria” egoera berri hartan—. Mugimendu honen buruen artean zegoen Martín de Alzaga merkataria, Aramaioko arabarra. Hirian bizi ziren galiziar, katalan eta euskaldunekin tertzioak antolatu eta gobernu berria ezarri zuen Alzagak. Azkenean, altxamenduak porrotean bukatu zuen, eta Argentinak ez zuen independentzia eskuratu 1810eko maiatzeko iraultzera arte, baina ordurako Alzagak erabat zuen aldaturik iritzia: bi urte geroago, Argentinako gobernu berriaren kontrako konspirazioa geldiarazi zenean, bere izena agertu zen, eta hiltzeko zigorra ezarri zioten.

Mexiko, 1810. Espainiako Errege Armadak mexikarren lehendabiziko saiakera independentista suntsitzen du. Bertan hogeita hamar urteko militar bizkaitar bat aurkitzen da: Pedro Celestino Negrete, karrantzarra. Aurrean, Hidalgo abertzalearen gidaritzapean, Ignacio Allende, Juan de Aldama eta Mariano Abasolo kriolloak zeuden. Hamar urtetan Mexikon inor ez da ausartuko independentzia berriro eskatzen, 1821era arte.

Baina oraingo honetan Negrete independentziaren alde jokatu du, armada-ko beste kide batzuekin batera —horien artean Jose Antonio de Etxabarri gordexolatarra eta Agustín de Iturbide euskal-mexikarra—. *Plan de Iguala*-ren bitartez, Mexikoko agintariek Espainia eta Mexikoren arteko banaketa baketsua lortu nahi dute. Ustekabean beren helburua lortzen dute, eta Negrete izango da esta-

Ikasgelan beti galdera bera egin ohi da, ea euskaldunek Amerikaren askatasunaren alde ala kontra borrokatu zuten: bai eta ez, erantzun daiteke

El Doliente de Hidalgo bandera oso ezaguna da Mexikon. 1811n sortu zen Hidalgo buruzagiaren matxinadarekin. Haren ondoan, hainbat kriollo euskaldunek hasi zuten Mexikoko independentzia gerra.





tu jaioberriaren buruetako bat, Gobernu *Triunvirato*aren partaide izango da gainera. Hala ere, bakeak ez zuen askorik iraun: 1825ean Iturbidek enperadore izendatu zuen bere burua, eta 1827an errepublika berriak europarrak kanporatzeko agindua eman zuen. Negrete eta Etxabarri erbestean hil ziren.

Kolonbia, 1820. Simon Bolibarrek, Angosturako kongresua bildu eta gero, gerra osoa deklaratu dio Espainiari. Azken horren erantzuna, nola ez, militarra izango da. Penintsulatik batailo berriak bidaltzen hasiko dira, horien artean euskal boluntarioek osaturiko gudarosteak daude, esaterako, Nafarroako Lehen Batailoia delakoa. Armada horren buru beste bizkaitar bat dago, Miguel De la Torre, Karrantzan jaioa hau ere. Hasieran hainbat garaipen lortu bazuten ere, azkenean De la Torrek eta bere armada Maracaibon setiatuak bukatuko dute. Bi jeneralek, De la Torrek eta Bolibarrek, Amerikako eskualde hartako armada espainiarren errendizioa sinatuko dute, Kolonbia eta Venezuelako independentziak onartuz.

Peru, 1825. Bolibar eta San Martín, hau da, Hego Amerikako independentziaren bi bultzatzaile nagusienak, Espainiako boterearen azken gotorlekuaren kontra ari dira elkarrekin borrokatzen. Urtebete lehenago, Pedro Antonio Olañeta jeneralak, jaiotzez elgetarra, estatu kolpe bat eman du Peruko talde independentisten aurka. Berak gidatu zuen Amerikako azkeneko armada espainiarra, harik eta Ayacucho independentistek garaitu zuten arte. Bera izan zen “tronoaren

Euskal jatorriko politiko eta militar ugari nabarmendu ziren, modu batera edo bestera, Amerikako independentzia prozesuetan. Ezker-eskuin eta goitik behera: Martin de Alzaga, Agustín de Iturbide, Pedro Antonio Olañeta, Pedro Celestino Negrete, Ignacio Allende, Juan de Aldama, Miguel De la Torre eta Mariano Abasolo.

azken defendatzailea”, bere gutunetan aldarrikatu zuen moduan. Alferrik, ordurako Amerikako espainiar inperioarenak egin zuen.

Azkenengo hausnarketa

Beraz, euskaldunek Amerikaren askatasunaren alde ala kontra borrokatu zuten? Ez alde eta ez kontra, gutxienez euskaldun bezala. Galdera berez ez da egokia. Amerikaren independentziaren aurrean, euskaldun izateak ala ez izateak ez zuen garrantzirik. Aldea beste nonbait zegoen: europarren eta kriolloen arteko hausturan, alegia. XVIII. mende osoan zehar kriollo amerikarren nortasuna gogortuz joan zen heinean, independentzia ez zen gehiago utopia bat izan, posibilitate bat baino (ikus 9. orrialdeko artikulua). Amerikako Estatu Batuek Ingaltarraren kontra askatasuna lortu zutenean, kontua ez zen ea Amerikako gainontzeko koloniek independentzia lortuko zutenentz, noiz lortuko zuten baizik.

Oro har, independentziaren aurrean bi iritzi izan zituzten Ameriketako euskaldunek: Europatik etorritakoek, normalean, Espainiarekiko atxikimendua mantendu nahi izan zuten; bertan jaiotako beren seme-alabek, aldiz, independentziarako grina erakutsi zuten. “Seme-alabak, heldutasunera heltzen direnean, gurasoen etxetik atera nahi dute beren etxe propioa egiteko. Ba al dago zer-bait naturalagorik?”, galdetu omen zion Iturbide gazteak haren aitari. Mexikok –eta Amerika osoak– Espainiari egin zion galdera bera alegia.

Simon Bolibarren

Euskal Herriko irakasgaiak

XABIER IRUJO

...Y ANSÍ, yo, manco de mi pierna derecha, de dos arcabuzazos que me dieron en el valle de Chuquinga, con el mariscal Alonso de Aharado, siguiendo tu voz y apellidándola contra Francisco Hernández Girón, rebelde a tu servicio, como yo y mis compañeros al presente somos y seremos hasta la muerte, porque ya de hecho hemos alcanzado en este reino cuán cruel eres, y quebrantador de fe y palabra; y así tenemos en esta tierra tus perdones por de menos crédito que los libros de Martín Lutero. Eta sinatu zuen Lopek 1561. urtean, *Hijo de fieles vasallos tuyos vascongados, y rebelde hasta la muerte por tu ingratitude, Lope de Aguirre, el Peregrino*. Lope Agirre, Maraion matxinatuen burua eta amerikar askatasunaren suspertzailea, Hipolita Bolibarren hazamak gaztetxoari Caracasko etxean kontatzen zizkion istorioen pertsonaia nagusia zen. Urteak pasa eta Agirrek Felipe Bigarrenari idatzitako gutunaren kopiak inprimatzeko agindua luzatu zuen Simon Bolibarrek.

Bazuen Bolibarrek Caracasko Errege Konpainia Gipuzkoarraren kontra matxinada gertatu zenean, Venezuelan zehar hedatu zen Andresote esklaboaren oihuaren berri ere bai: *“¿Que se vayan de aquí estos vascos, que ni españoles son?”*. Izan ere, gaztelania eskasa zekiten gipuzkoar haiek eman zioten Venezuelari independentzia ekonomikoa eta ageri instituzionala, XVII. mendean oihana besterik ez zena, XVIII. mendean *Capitanía General* bilakatu arte. Bolibarrek Amerika politikoki askatu zuen gaztelako erresumako eskuetatik, hamabost urteko kanpaina militarren ondoren (1810-1825), alabaina, hori bezain irismen handikoa da, gipuzkoar haien ereduari helduz, kontinente aske berriari eman nahi izan zion legedi politiko eta ekonomikoa.

Familiak Bilboko errepublikarekin zituen negozioak zirela medio, *Consulado de Bilbao, Casa de Contratación y Juzgado de los Hombres de Negocios de Mar y Tierra* estatutuen ezaguerak sakona zuen Bolibarrek. 1801 eta 1802an Bilbon egon zenean, Bidebarrieta kaleko Adan de Yarzaren etxeko tertulietan ezagutu zituen Bolibarrek Sociedad Bascongada de Amigos del País elkarteak hainbat kide, hala

nola: Elhuyar anaiak, edota Valentin Foronda, Bergarako Seminarioren eta Filipinetako Merkataritzarako Errege Konpainiaren sortzaileetarikoa bat. Euren eskutik eta aipatutako euskal erakundeen itxurara eratuko zituen Bolibarrek Ameriketako Sociedad Económica de Amantes del País eta Escuelas de Minería 1825ean. Bilbon zela, Konbentzioko Gudan Gipuzkoako diputazioak gobernu iraultzaileari estatu gipuzkoar independente bat eratzeke egindako proposamenaren berri izan zuen Bolibarrek. Eta Gernikako arbolaren aurrean ere izan zen zutik, Pedro Antonio Bolibar Arauko Mungiako senitartekoaren eskutik.

Hainbat euskaldun egon ziren Hego eta Ipar Amerikako independentzia gudetan matxinatuen ejertzitoetan. Esaterako, Jose Luciano Elhuyar, Bolibarrek Bilbon ezagutu zuen Juan Joserren semea, askatasunaren alde gogor borrokatu zen Kolonbian, euskal jatorriko jeneralaren aginduetara. Bolibarrek independentziaren ikurra hartu baino urte batzuk lehenago, Napoleonek Gaztelako amerikar eremuetan sen independentista piztu nahi izan zuenean, sei agente bidali zituen Ameriketara, horien artean lau euskaldun: Iruñeko Benigno Alfaro Buenos Aires eta Montevideora; Remigio Aparicio gasteiztarra Txilera; eta Luis Azkarraga eta Juan Bizkarola bizkaitarrak Limara eta Panamara.

Ipar Ameriketako ere lagundu eta suspertu zuten hainbat euskaldunek independentziaren aldeko borroka. George Washingtoni eman zizkion Diego Gardoki Arrikibarrek 215 kanoi, 30.000 musketa, 30.000 baioneta, 51.314 bala, 137.000 kilo bolbora, 12.868 granada, 30.000 uniforme eta 4.000 denda. Jean Lafitte Mexikoko Golkoko *izurriteak* Andrew Jackson lagundu zuen bere artillerioak New Orleans-eko kaian ingelesena kontra paratuz. Eta, gogo txarrez bazen ere, esker onez barkatu zien Baratariako piratari Estatu Batuetako presidentek euren aurreko bekatu handiak... Ez geroakoak ordeak!

Simon Bolibarren omenez hamaika estatua jaso da Hego Amerikan. Iruñian Boliviako Potosí hirikoa.



Amerikako euskal “luzapenetan” kriolloak agintari

JOSEBA AGIRREAZKUENAGA

AMERIKETAKO LURRALDEETARA XVI. mendez geroztik europar, afrikar eta asiarrak bildu zen, baina Espainiako Gaztelako Korokoak ziren agintari. Eta horretan, hainbat euskal herritar. Ameriketako lurraldeetan, gizarte eta ekonomian kriolloak (*criollo*, espainiar bikoiten oinordekoak Ameriketara heziak) indartsuak izan arren, erakundeetako buruak Espainiako erresuman jaioak izan behar ziren. Joera honek Ameriketara XVIII. mendean ezinegon eta tirabira ugari sortu zuen. 1770eko apirilaren 16an, Carlos III.a Espainiako erregeak, Ameriketako lurraldeetan soilik gaztelania erabili behar zela eta agintariak europarren erara jantzi behar zirela agindu zuen. Bestalde, Ameriketako hirietako gizarteak erabat nahasia eta berezitua zen. Ondoko irudiak *España Berria* edo Mexikon zegoen “kastazko” gizarteak adierazten digu. Kriolloak izan ziren independentziaren aldeko buruak, gizarte berriaren agintari ere izan nahi zuten. Hala ere jatorrizko herri indigenek ere beren kabuzko borroketan jarraitzen zuten.

Euskal herrialdeetakoak, “aitorseme” edo nobledunak izanik, berezko sarrera erraza izan zuten Ameriketara. Espainiar erresumako militar eta burokrata legez agintari ziren eta bertan *Bizkaia Berria* eta horrelako lurraldeak sortu zituzten, jakina, jatorrizko herri indigenen aurkako borroketan. Ezkontzak antolatzerakoan, senitartekoak deitzen zituzten, euskal herritar senideen estrategia zen hura: ahaideak Ameriketara bidali, bertan ahaideen balio nortasuna sendotzeko —ahaideen nagusitza eta zabalkundea balore nagusienetakoa zen—. Beraz, Euskal Herriaren luzapenak sortu ziren Ameriketara. Adibidez, Galdameseko J.I. Campo (1726-1782) Bizkaia Berria finkatu zen eta alaba J.J. Yandiola Campo lehengusuarekin ezkondu zuen. Honek, segidan, Galdameseko beste Yandiolatarrak deitu zituen eta Enkarterrietako eta Ameriketako ahaideak lotu zituzten modu horretan.

Cadizen, 1810eko deialdiari erantzunez, Napoleonen aurkakoak bildu ziren eta bertan Espainiako erresumarako Konstituzio politiko



XVIII. mendeko anonimoa, Mexikoko Museo del Virreinato. Mexikoko gizarte nahasiaren adierazle da margoa: “Txinatarra indiatararekin” edota “Mulatoa espainiarrarekin” jartzen du eszena bakoitzaren azpian.

berria asmatu zuten. Espainiako Gorteen ganberan, euskal jatorrikoak eta euskaldunak ere egon ziren Ameriketako ordezkarien artean. 1809tik Ameriketako lurraldeetako kriolloak autogobernu politikoak antolatzen hasi ziren beren kabuz, independentziara bidean. Izan ere, kriolloek beste era batera gobernatu nahi zituzten Amerikako lurraldeak. Baina Cadizeko biltzarrean ez zen izan ez begirunerik ez federalismorako joerarik eta Ameriketako ordezkariak murriztu egin zuten. 1812an Cadizen, Asia, Amerika eta Europako Espainiar erresumaren Konstituzio politiko berria erabaki zen.

Juan Antonio Yandiola, Cadizen zegoela, Espainiako erregeordetzaren ordezkari legez bidali zuten Mexikora, bertako independentziaren aldeko jokabideak geldiarazteko eta txosten jakingarriak idatzi zituen Espainiar erresumaren batasuna helburu. Kriolloak alde batetik eta herri indigenen eskariak bestetik bereiztu behar zirela azpimarratu zuen.

Ameriketako lurraldeen independentzia prozesuetan, Ipar Ameriketako izan zen adibide. Baina Ameriketako Estatu berriko konstituzio liberaletan ez dira aipatzen jatorrizko herriak, hau da, herri indigenak. Orain, berrehun urte bazterturik izan ostean, herri indigenak eskubidedun bihurtu dira nazioarteko zuzenbidean, 2007an Nazio Batuek hala erabakita.

Eta prozesu horietan euskaldunek egindako ibilbideak aztertzeke daude. Adibidez, Fernando VII.ak aginte absolutua hartu zuenean, 1814an, Miguel Lardizabal Uribe izendatu zuten Indietako arazoetarako buru. Kriolloa zen, Tlaxcalan (Mexiko) jaioa, baina agintaria Espainian, eta Bergarako Mintegiaren buru ere izan zen. Azkenik aipatu dezagun, beste ibilbide bat: 1774an Gipuzkoako Errezilen jaio zen Martin Jose Mujika eta 1841ean hil zen Cuzcon. Hamabost urte zuela Kordobako osabak, Migel Antoniok, Ameriketara eramane zuen eta bertan ibilbide oparoa burutu zuen zuzenbidean, politikan eta justiziako arloetan. 1814an Huamangako (Ayacucho, Peru) ordezkaria izan zen Cadizeko Gortean. ■

«Tabu batzuk komikien bidez argituko dira»

... handitzen zarenean ikasiko duzu isilik egoteak ze min egin digun...

UXUE ALBERDI

Argazkiak: Dani Blanco

Feminismoa eta literatura. Noiz gurutzatu ziren zure barruan bi hitz horiek?

Literatura beti egon da nirekin, eta feminismoa nerabezaroan aurkitu nuen, sexualitateari lotuta. Sexu kontuetan hasi nintzenean jendar-tean sexualitateari zegokionez moral bikoitza zegoela ikusi nuen, eta moral bikoitz horren alderik txarrena guri, emakumeoi tokatzen zitzaigula. Hasieran mutiko bilakatzeko saiatsu nintzen. Duela gutxi topatu ditut garai hartako argazkiak, eta shocka izan da. Banuen sentsazio haren oroitzapena, nola nire emetasuna ezkutatzeko saiatzen nintzen, baina ez nintzen argazkiekin oroitzen: mutikoa nintzen! Baina trabestismoa ez zen nirea, ez nuen neure burua trans kontuetan ikusten, eta orduan feminismoarekin konpondu nuen neukan ezinegona. Feminismora jo nuen eta, ordutik, bizi-tza osoan izan naiz feminista eta literaturzalea.

“Literatura femeninoa” izendapena despektiboki erabili izan da. Idazleek literatura idatzi nahi dute, ez literaturaren azpiatal bat...

Bai, hori hala da, eta gainera ulertzekoa da. “Literatura femeninoa” beti era despektiboan erabili da, eta inork ez du soinean mespretxuzko kutsua daraman ezer eraman nahi. Literatura femeninoa bigarren mailakotzat jo izan da beti. Kontua da arazoa ez dela terminoa, terminoari atxiki zaion mespretxuzko kutsua baizik. “Femenino” hitzak duen kutsu negatiboari aurre egiten badiogu bakarrik konponduko dugu arazo hau, gu geu, emakumezkook baikara bigarren mailakotzat hartuak, izan literaturan izan beste edozertan. Feministok beti izan gara femenino terminoarekin lan egitea-

ren aldekoak, gure lana ez da etiketa horien kontra jotzea izan, duten duintasuna, sakontasuna eta seriotasuna ezagutzea, azaltzea eta transmititzea baizik. Bere lekuan ipintzea.

Eider Rodriguez irakurri genion maiz saiatsu izan direla emakumezko idazleak beren izenabizenen ondotik emakume hitza mandeulia bailitza uxatzen, idazle bat gehiago, idazle normal izan nahian. “Hemen eta orain idazle normal izateko gizonezko izan beharra dago”, baieztatzen zuen, ordea.

Jakina. Eta mandeuliarena etiketa horri jarri zaion zamatik dator. Baina mundu honetan guztia etiketatzen da, ez dago neutroa izateko aukerarik. Ez dago ezer neutro-rik. Gizonezkoen mundua neutroa, unibertsala eta objektiboa dela saldu zaigu, baina ez da egia. Gizakiak garen heinean, subjektuak garen heinean ez gara objektiboak, ezinezkoa da. Objektibitatea da, hain zuzen, emakumezkook desautorizatzeo erabiltzen duten tresna. Eta desautorizazioaren aurrean kritikari, idazle edo sortzaile gisa azaltzen bazara, jai duzu, frustrazio per-

“Hasieran uste nuen Stockholm sindrome handia genuela Euskal Herriko emakumeok; gero konturatu nintzen beldur handia zegoela, eta geroago ohartu naiz garbikeria kontua dela”

Nortasun agiria

Josune Muñoz Bilbon jaio zen 1967an. Euskal filologoa da ikasketaz, baina formakuntza feministan eta literatur ikerketan ari da aspalditik. 2004an Skolastika jarri zuen martxan, emakumeek sortu izan duten literatura eta gaur egun sortzen ari direna biltzeko, ikertzeko, lantzeko eta irakasteko espazioa. Dokumentazio gunea eta liburutegia izateaz gain, bilgunea ere bada Skolastika. Emakumeak eta literatura ardatz dituzten hainbat ikastaro eskaintzen ditu Josune Muñozek, eta literatur kritikaria da. “Sareinak, feminismo literarioak” proiektuko kide ere bada. Azken urteotan emakumeek sorturiko komikiak aztertzen ari da buru-belarri.

• PERSONAIA •
Josune Muñoz





tsonaltzat, purrustadatzat hartuko baitute zure kexa. Feminista gisa bakarrik egin diezaiokegu aurre desautorizazioari, feminismoak ematen ditu indarra, talde eta babes sentsazioa, tresnak eta beldur eza, nahiz eta mespretxu eta misoginia handiak jasan behar izan.

Kanonetik bereiztea da etiketa jartzea, baina zeintzuk dira literaturgintza kanonikoaren ezaugarriak?

Literatura kanonikoa, maisulanak —ez maistralanak—, adibide gisa jartzen diren liburu unibertsal horiek, gizonen liburuak dira. Eta gainera, ez edozein gizonenak. Gizon hori zuria, anglosaxoia, heterosexuala eta burgesa izan da gehienetan, eta jakina, gaiak, erak eta gainontzekoak beraiek ezagutzen dituztenak eta haien interesekoak izan dira. Emakumezkook ez dugu tokirik hor, objektu gisa baino ez. Gainera, kanona sortzeko ez da nahikoa gizonezko bat. Kanona lau gizonezko sortzen dute: idazleak, argitaratzaileak, kritikariak eta irakasleak. Idazleei bakarrik begiratzen badiegu kanon partziala ari gara aztertzen, kanon osoa ondo neurtzeko lau subjektu horiek hartu behar dira kontuan. Horrela ondo ikus-

ten da emakumezko idazle batek egin beharreko ahalegina eta gainditu beharreko oztopoak, zeren kontra egin beharko duen kanona izatera iritsi nahi badu. Idazle izatea lortzea ez da nahikoa, haizealde izan behar dituzu argitaratzaileak, kritikariak eta irakasleak ere eta, askotan, aurkakoagoa izaten da kritikarien eta irakasleen jarrera, idazleena edo argitaratzaileena baino.

Zein zailtasuni egin behar die aurre intelektualitatean saiatzen den emakumeak?

Desautorizazioa da gure aurka erabiltzen duten baliabiderik eraginkorrena. Desautorizazio hori oso konplexua da, eta era gordinean edo xuabeen ematen da. Zenbat eta feministago agertu, orduan eta misoginia handiagoa jasoko duzu bueltan, alderantziz proportzionala izango da. Esango dizute feminista zarela, erradikala zarela, eta beraz zure iritziak ez duela balio, esajeratua, histerikoa eta partziala zarelako. Euskal kulturari garbikeria handia dago, *dezentismo* handia. Oso dezenteak, oso txukunak eta garbiak gara denok. Gugandik espero dena agertzen dugu publikoki. Eta emakumeak garen heinean, zer espero da gugandik? Zintzoak eta politak izatea; xuabe hitz egitea; kontrako iritzirik ez ematea; maitekiro, lagun agertzea...

Emakume guztiok jasan ditugu gure aurkako erasoak, zirkulu txikietan kontatzera ausartzen garenak, baina kanpora begira garbikeria handia egoten da, ez ditugu kontatzen. Hasieran uste nuen Stockholm sindrome handia genuela Euskal Herriko emakumeok; gero konturatu nintzen beldur handia zegoela, eta geroago ohartu naiz garbikeria kontua dela. Hori euskal kultura osoan ikusi dut, bai emakumeengan bai gizonezkoengan. Oso penagarria da dagoen azpijokoa, azpijoko horren ezagutza eta salaketa eza. Ez dakit inoiz euskal kulturari dagoen zikinkeria garbituko den, orain arte garbikeriaz tratatu da guztia: dena oso garbi dago, baina denok dakigu ezetz. Eta hori boz gora esan behar dugu. Nik nire arloan emakumeoi emakume izatearren ematen zaigun tratua, matxismoa eta misoginia itzela salatuko ditut. Esan egin behar da, hori baita euskal kulturak duen zulo handia. Hortik energia handia joaten da. Gainera, garbikeria horren ondorioz, kulturari saiatzen diren emakume gazteek ez dute ikusten beren aurka martxan dagoen mekanismo pila, eta “normalak”, “neutroak” balira bezala idazten dute, egiten dute bertsoan...

Erasoek ez zaituzte beldurtzen?

Skolastikak berak ematen didan indarra dut eta, batez ere, askatasun osoa. Salbuespenak salbuespen, beldurra da, batez ere, Euskal Herriko emakumeok isiltzen gaituena. Nik ez dut nire lanpostua galtzeko beldurrik, zorionez, urte hauetan arrakasta handia izan dut: eskaera eta ikasle propioak ditut, gero eta gehiago. Horregatik hitz egin dezaket, sistematik kanpo nabilelako. Sistema barruan egongo banintz ni ere isilago nengoke. Hala ere, gero eta gehiago dira sistema barruan egonagatik argi hitz egiten duten emakumeak. Ni ez naiz gai hau landu duen bakarra izan. Lehenago, Itxaro Borda, Linda White, Laura Mintegi, Inma Errea, Gema Lasarte... izan ziren, eta orain indarrez datoz Ira-txe Retolaza, Amaia Alvarez Uri...

Emakumeen eskubideetan aurrerapen handiak izan ditugula aipatzen da sarri. Hori islatzen al da literaturan?

Nik datu objektibo bat ematen dut beti. Duela hamabi urte hasi nintzen euskal literaturan emakume idazleen ehunekoa zein zen aztertzen, eta garai hartan %12 ziren emakumezko idazleak. Urteak aurrera %12, %10, %11, %9... gorabehera txikiak izan ditu zifra horrek, eta azkeneko bi urteetan %15 izan dira. Hamabi urtetan %12tik %15 izatera pasa gara. Alde handia iruditzen zaizu? Jendarteko zurrumurrua da oso lorpen handiak egin ditugula, baina begira, datu objektiboek ezetz esaten dute.

Zergatik ez dira datu horiek publiko egiten?

Lehen aipaturiko garbikeriaren adibide bat emango dizut. Nik beti aipatzen ditut datu hauek: hitzaldietan, elkarriketetan, ikastaroetan... Zifra oso esanguratsua da, eta ni urtetan saiatu naiz datua Jon Kortazarri helarazten. Duela bi urte aurrez aurre izan nuen eta, gainera, emakumezkoen literaturari buruzko ekitaldi batean. Eta galdera egin nion: "Jon, zuk

"Kanona sortzeko ez da nahikoa gizonezko bat. Kanona lau gizonezko sortzen dute: idazleak, argitaratzaileak, kritikariak eta irakasleak"

badakizu gaur egun emakumeok ehuneko zenbat garen euskal literaturan?". "Itxaron, itxaron...", esan zidan, altxa eta joan egin zen. Fisikoki. Ez entzuteko. Joan egin zen. Hori desautorizazio hutsa da, ez entzun nahia, eta ez entzuteko alde egin behar badut, banoa. Hori da Euskal Herrian ematen den desautorizazio modurik argiena.

Virginia Wolfek 1928an idazteko gela propio bat eskatzen zuen. Zer behar dute oraingo emakume idazleek idazle izan ahal izateko?

Gela propioa, berdin-berdin. Gela propioa, diru propioa, pentsamolde propioa... eta taldean lan egitea. Lan kulturetan oso isolaturik ibili gara Euskal Herrian eta gure taldea topatu behar dugu, ze norberak bere kabuz lan egitea

oso ondo dago, baina badaude zenbait gauza taldeka baino lortu ezin daitezkeenak. Bestalde, inportantea da eredu batzuei buelta ematea ere, gaur egungo ereduak ez baitira jasangarriak. Esparru publikoan aritu direnak gizonak izan dira orain arte, eta beraien eredu era-

man dute alor horretara, eta eredu horren barruan gizonek ez zeukaten etxeko lanik, ez zaintzarik... Baina guk bai, baditugu, eta arlo publikoan orain arte egon den eredu guretzat ez da baliagarria. Beraz, eredu bera da kuestionatu behar duguna, osterantzean, zer edo zer handia sakrifikatu behar izango dugu. Eta handia diodanean diot amatasuna, edertasuna, osasuna, zoriontasuna...

Esanak esan, Euskal Herriko gizarte matriarkala izan dela entzuten dugu maiz. Sekula existitu al da matriarkaturik hemen?

Nik behin eta berriro esaten dut Euskal Herrian ez dela sekula matriarkaturik izan eta, gainera, matriarkatua egon dela sinesteak kalte handia egin digula emakumeoi, batez ere, gure benetako boterea ez dugulako sekula ondo neurtu. Matriarkatua egon dela sinesten badugu gure boterea kristorena dela sinesten dugu



eta ez da egia, gure boterea ez da sekula kristorena izan. Lehenbailehen errebisatu beharreko kontzeptua da matriarkatuarena.

Azken urteotan emakumeek eginda-ko komikiak eta eleberri grafikoak aztertu dituzu. Zergatik dira lan hauek bereziki interesgarriak?

Oso berritzaileak, modernoak, apurtzaileak, freskoak eta indar handikoak direlako, eta irudia dakartelako. Komikiak primeran islatzen du emakumeen begirada, irudien bitartez hitzen bidez baino askoz hobeto islatzen da.

Gehienek izaera autobiografikoa azpimarratu ohi da. Zergatik dute emakumezko sortzaileek beren buruaz hitz egiteko beharra?

Orain arte ezin izan dugulako egin, historikoki ase gabeko premia da. Mundua nork kontatu du? Kanonak, beraz, gizonezkoek. Lehen aipatu gisako gizonezkoek. Kontatzeko hainbat era egon badira ere, era bakar horrek hartu du unibertsaltasuna beretzat. Kritika tradizionalak, kritika matxistak betidanik erabiltzen duen aurreiritzizko diskurtsoa dago hor: gizonezkoek mundua kontatzen dutenean mundua kontatzen dute; emakumezkoek mundua kontatzen dutenean beren mundua kontatzen dute. Nahita sorturiko aurreiritzia da, guztiz intezionala. Nitasun handia dago emakumeen lanetan, baina lan horiek osotasunean aztertuz gero, gehienetan nitasunetik gutasunera doan bidea ikusten da. Hori literaturan ahots narratiboaren teknika bat da, anplifikatzea izena duena, zabaltzea, handitzea. Nitik gura. Marjane Satrapik primeran egiten du *Persepolis* komikian. Liburuaren hasieran dio: *Nire istorioa kontatuko dut*. Baina bere istorioaren bidez bere familiaren istorioa kontatzen du, bere familia kokatzen den gizarte mailaren istorioa, Irango gizarte osoaren istorioa. Azkenean, Irango Historia kontatzen du bere istorioaren bidez. Esan digute, eta guk sinetsi, Historia kontatzeko oso istorio handiak kontatu behar direla, eta ez da egia! Historia handia istorio txikietan ere badago, eta guk oso ondo dakigu istorio txikiak kontatzen. Istorio txiki horiei berez duten handitasuna eman behar zaie.

Komiki hauetariko gehienak zuri-beltzean eginak dira. Zergatik?

Batzuetan istorioak oso beltzak direlako. Komikiaren bitartez emakumeok jasotzen ari garen jarrerarik misoginoenak ere kontagarriak direla frogatu dugu. Kontatzeko zailak diren istorioak ez dira hain zailak irudikatzen. Hor

AZKEN HITZA

Ama eta idazle?

“Hasieran nire ikerketa ez zen ofiziala, arrazoi pertsonalengatik hasi nintzen gai hau lantzen. ‘Nola egin dezaket emakume eta ama izanda idazle ere izateko?’, galdetzen nion neure buruari. Emakumezko idazle arrakastatsuen biografiak miatzen hasi nintzen, ikertzen, bakoitzaren baliabideez, aukerez eta eurez gehiago jakiteko, eta konturatu nintzen nik nahi nuena ia ezinezkoa zela, ikerturiko emakume bat bera ere ez baitzen ama. Alde bat sakrifikatu behar zela ulertu nuen, edo ordura arte behintzat sakrifikatu izan zela. Biak batera izatekotan berritzailea izan beharko nuen”.

dago *Quiéreme bien* [maita nazazu ondo], Rosalind B. Penfold-ena. Egileak, tratu txarrak jasaten ari zen bitartean, irudiak egiten zituen, eta kutxa batean gordetzen. Tratu txarren istorio beltz hori pasa zenean, terapia bat egin zuen eta terapeutari marrazturiko irudien berri eman zion. Orduan berreskuratu zituen, eta irudiek bizi izandakoa zeinen ondo islatzen zuten ikusi zuen. Irudi haiek bat-batekotasuna zuten: jaso eta esan, irudietan ipini. Terapeutak irudi haiek ordenatzeko esan zion, eta istorio baten moldean sartzeko. Horrela konturatu ziren komiki baten aurrean zeudela. Lan hauek oso onak dira isilpean, ilunpean dauden gaiak argitara ateratzeko.

Etxea, babesaren metaforatzat ikusi izan duguna, mehatxuzko espazioa da komiki hauetako askotan.

Bai, nahiko engainaturik ibili gara espazio pribatua dela eta. Sehaska

kantetan espazio pribatua toki segurua zela irakatsi ziguten: kanpoan arriskua, etxean babesa. Eta maiz kontrakoa izan da. Hainbat kasutan etxean jazo dira tratu txarrak, bortxaketak, intzestuak, sexu abusuak... Hainbat arazo sozial, hainbat drama etxeetan bizi dira: alkoholismoa, drogamenpekotasuna... Hori guztia kontatu egiten da komiki hauetan, oso era gordinetan, gainera. Horren adibide garbiena *La muñequita de papá* (aitaren panpina) liburua da, Debbie Drechsler-ena. Primeran islatzen du etxe barruko giroa: beldurra, amesgaiztoak, asfixia, gaua... Binetetan ez dago arnasa hartzeko lekurik. Etxe barruko irudietan ez dago airerik, baina kanpoaldea ere berdin irudikatzen du, batek infernua barruan daramanean, edonora eramaten baitu. Komiki hauetan hiria ere mehatxuzko espazioa da. Egia da feministok kalea gurea ere badela aldarrikatzen dugula, baina arriskuak ikusten ditugu bazter guztietan. Komikia gure munduaren erakusleho izan da. Roberta Gregory-ren *El putón* [putatzarra] eta Phoebe Gloeckner-en *Vida de una niña* [Neskatila baten bizitza] komikietan, adibidez, hippyen garaian, underground eta kontrakultura mugimendua eman zenean emakumeek jasan zituzten ekintza larriak kontatzen dira: drogaturik zeuden bitartean jasandako bortxaketak, abortu ilegalen testigantza gogorak... Orain, komikiaren bitartez oso gordeta zeuden emakumeen bizipen historikoak ari dira azaleratzen. Tabu batzuk komikien bidez argituko direla uste dut. ■

www.argia.com/argia-astekaria
helbidean, elkarrizketaren bertsio luzea.

• Marta Saloña, entomatologoa •

«Eulirik gabe zaborraz inguratuta biziko ginateke»

Azken hamar urteetan, entomologia forentseari eskaini dizkio orduak eta indarrak Deustuan jaiotako zoologo honek. Eta euliak eztiaren ingurura nola, hedabideak sarritan Marta Saloñarengana joatea eragin du “forentse” etiketak. Telebistari botatzen dio errua berak. Guk ez dugu amua irentsi: forentse lanaz ia ez dugu barbarik egin, intsektuez asko.

UNAI BREA

Argazkiak: Iñigo Azkona

Intsektuak dira animalia guztietan ugarietak, baina ezin gauza bera esan entomologoez...

Ez dago ikertzeko sos asko, horregatik ez dago entomologo gehiago. Baina bokazioa badago.

Benetan? Bada, jende gehienari nazka ematen diote intsektuek.

Lehenik eta behin, betidanik dakigu gaixotasunak kutsatzen dituztela. Bigarrenik, batzuetan geu gara haien bazka preziatuena, eta hori ez dugu gustuko. Eta gainera, oso gutxi daki-

gu haietaz. Horregatik onartzen dut hedabideei elkarrizketak ematea, dibulgazio asko dagoelako egiteke. Jendeak intsekturik gabe ezin bizi gaitezkeela jakin dezan nahi dut.

Orduan, intsektuek ematen diguten higuina justifikatuta dago ala ez?

Bai, prebentzio neurria den heinean. Ezin dugu pentsatu intsektu guztiak zoragarriak direla. Batzuek arazoak sortzen dituzte, eta hori jakin egin behar dugu.





Lan-lerro garrantzitsua garatzen ari zara ikerketan erabiltzen diren animalien alorrean, ikuspuntu etikotik betiere. Baina, zer etika maila izan behar dugu laborategietan intsektuak erabiltzeari dagokionez?

Ezin daiteke intsektu bat hil besterik gabe, batzuk oso leku berezietan bizi direlako eta akabatzeak arazo handiak sor ditzakeelako. Egunen batean, etika-batzordeek ebaluatu egin beharko dituzte animalia ornogabeak erabiliz egiten diren ikerketa-proiektuak. Gaur egungo legediak linboan dauzka animalia horiek, ornodunak baizik ez ditu hartzen animaliatzat. Intsektua babestutako espezie batekoa bada, orduan badago araudi bat harekiko, biodibertsitatearen kontserbazioa dagoelako tartean. Gainerakoentzat, ezer ez.

Intsektuen kasuan, zaila dirudi norbanakoaren eskubideez hitz egiteak.

Ornodunen sufrimenduaz jabetzen gara, gure antzera adierazten dutelako. Baina intsektuen sufrimendua ez dugu sumatzen; intsektuek eskeleto gogorra daukate kanpoko aldean, eta ez dute keinurik egiten, beste era batera adierazten dute mina. Batik bat, guk antzematen ez ditugun substantzia kimikoen bidez. Beraz, laborategian erabiltzen den euli bakoitza sufritzeko gaitasuna duen banakoa da, nahiz eta gaur egun haren balizko eskubideak ez dauden aitortuta. Ondorioz, badira ornogabeentzat gomendatutako eutanasia teknikak.

Oro har, ikertu daiteke sufrimendurik eragin gabe animaliei, ornodun zein ornogabe?

Posible da gero eta animalia gutxiago erabilita ikertzea. Azken bost urteotan aurrerapauso itzelak egin dira. Baina tamalez, legediak

Intsektuak aztarna

“Gorpu batek hilda daraman denbora kalkulatu daiteke nahiko zehatz, bertan dauden intsektuak aztertuz. Agertu den lekuan edo beste batean hil den ere jakin daiteke. Normalean hilketa bat ez da argituko datu horiei esker bakarrik, baina lagundu egiten du. Noizean behin ekartzen dizkidate hildako batengan aurkitutako aleak, baina gutxitan, batetik hemen hilketa gutxi izaten delako, eta bestetik sarritan ez direlako intsektuak jasotzen, ezjakintasunagatik”.

berak behartu egiten gaitu oraindik zenbait kasutan animaliak erabiltzera.

Euliak, gizakien areririk handiena dauka izenburua zure mahai gainean datzan liburuak. Izenburu horren helburua ale asko saltzea da. Ni ez nago horrekin ados, inola ere. Baina liburu honetan aipatzen diren espezieetako batzuk, egia da, arerio arriskutsuak dira gaixotasunak kutsatzen dituztelako. Eta bada euli bat, liburu honetan aipatua, pertsonen ehunak jaten dituen: *Cochliomya Hominivorax*.

Bizirik dauden pertsonenak?

Bai. Euli miasikoak dira, hau da, bizirik dauden animalien ehuna jaten dute. Aipatu dudan espezie hau eskualde tropikaletan bizi da, eta zorionez latitude epelagootan ez daukagu, baina tenperaturak gora egiten jarraitzen badu, ea ez ote diren iparralderantz etorririko. Tira, bada artikulu bat, Iberiar Penintsulan bizi diren euli miasikoez hitz egiten duena.

Beldurtzen ari naiz, aizu.

Kontuz ibili behar da. Inguruan dauzkagun espezieak, berez nekrofagoak direnak, potentzialki miasikoak izan daitezke, egoera baten eta bestearen arteko muga ez da hain argia. Nik ikusi ditut hemengo espezie batzuen argazkiak eta susmoa daukat miasikoak direla, baina ikerketa gutxi egin denez ezin dezaket esan segurtasun osoz. Hemengo abeltzainei eta foru aldundiei galdetu diet eta esan didate gurean ez dagoela miasirik. Sinetsi beharko.

Eta miasikoak albo batera utzita, euliak dira gure areririk handienak?

Ez dakit hain arerio beldurgarriak ditugun ere, edo guk geuk asmatzen ditugun. Baina euli nekrofagorik gabe, esaterako, zaborraz inguratuta biziko ginateke. Hildako gorpuez, hobeto esanda. Haiek gabe ezer ez litzateke birziklatuko, haiek dira hilotzak azkar baino azkarrago desagerrarazten dituztenak. Denetik jan dezakete, azken boladan sortu ditugun zenbait gauza izan ezik: plastikoa, metala... Eta horiez gain, badira beste euli espezie asko, gugandik aldenduta bizi direnak ez dutelako gutaz ezer jakin nahi. Gehienak baketsuak dira, erleak bezala polenez elikatzen direnak. Dagoeneko ikerketak egiten ari dira etorkizunean euli horiek –eta beste intsektu batzuek– egin dezaten gaur egun erleek egiten duten polinizazio lana, erleak desagertu egingo dira eta. Ez dakit zehazki zenbat urte barru, erleak ez direlako nire lan-eremua, baina arazoa ate joka dugu, eta ondorio ekonomiko latzak sortuko ditu. ■



Uhartedian

B

iziki maite dudan hitza da uhartedia. *Negutegia* idazten ari nintzela etengabe nuen ate joka, eta egunotan hura gazteleratzen jardun dudanean, berriro urgaineratu da. Uharte multzoa, nok bere berezitasunekin, bere subjektibitatearekin, baina denek dute zerbait amankomunean. Berezitasunean, singularitatean, subjektibitate berriak sortu ahal izateko. Uhartekak berriz jaiotzeko lekuak direla zioen Deleuzek, ernaberritzeko aukera ematen dutela. Eta “liburu ederrenak nolabaiteko hizkuntza atzerritar batean daude idatziak”, hori ere esaten zuen.

“Nola konponduko da ba ongi [idazlea], bere zeregina lengoia berri bat izatea bada?”, galdetzen zuen José Luisen joan den astean. Hitz higatuen aurrean lengoia berri bat asmatzea, hizkuntza atzerritar hori sortzea. Esango nuke zeregin hau gizarte osoarenak beharko lukeela. Arazoa ez baita konprometitua zauden ala ez. Erresistentzia hitza erabiltzen duzun ala ez. Koherentea zaren ala ez. Ez, hori ez da arazoa. Bai- zik eta hitz horiek dagoeneko eskuinak eta ultraeskuinak ere bere hiztegian sartu ditue- la, alegia, hitz horiek jada ez dutela garai batean zuten esanahia.

Lengoia berri baten bilaketan –bakardadean edo uhartedian–, uhartea ur azalean mantenduko da uhartedia osatzen duten gai- nontzeko irlekin, ene ustetan, des-ikasten, des-sortzen eta des-garitzen. Ikasteko, sor- tzeko eta garatzeko. Atzera joaten jakin behar da aurrera egin ahal izateko. Badakigu norantz goazen bestela, bizi dugun krisi glo- bal –ekonomikoa, ekologikoa, etikoa, hiz- kuntzarena– honen amil- degia etengabe handitzera.

Hitza garbitzeko beharraz idatzi zuen Ingeborg Bachmann poetak eta pentsalariak. Prest zegoela adierazi zuen Frankfurteko Uni- bertsitatean emandako



DANI BLANCO

Iratxe Ruiz

Urkiza

Padraic

hitzaldi sortan, prest hitzak garbitzeko ezinbestekoa den moral berri bati eusteko. Prest egotea zilegi da, beraz, zalan- tzarik gabe. Kontua da, nore- kin eta zertarako zauden prest.

Prest zeuden halaber turistak Costa Gravasen *Eden à l'ouest* filman klandestinoen ehizari ekiteko. Film horretan Grezia- ko uharte bateko luxuzko hote- lean, Turkiatik iritsitako klan- destinoen ehizara jolasten dira turista aberatsak. *The Shock Doctrine* Winterbotton zinegilearen filman prest zeuden ere Milton Friedman ekonomista eta Nobel sari ameri- karraren neurriak Txilen abian jartzeko. Neu- rri horiek hankaz gora jarri zituen lurraldea- ren baldintza sozio-ekonomikoak. Jakina, diktaduraren onespenearekin eta behartsue- nen lepora. Gerora beste herrialdetan gupi- darik gabe ezarri zituzten neurri neoliberalen laborategia izan zen Txile 70eko hamarka- dan. Egun, Irak eta Afganistan sutan jarri dituzten doktrina horiek ezartzen dituzte unibertsitate hoberenetan ikasi duten strate- gek. Eta abar luze bat, oso luzea. Beraz, prest, zertarako eta norekin.

Nire etxetik gertu bizi den baserritarrak ere prest zegoela esan zuen. Fisika ikasten ari zenean fakultatea utzi eta lurra landatzea erabaki zuen. Horretan aritu da azken urteotan, bigarren ingurabideak –Chillida- leku ukiezina zenez– bere landak irentsi dituen arte. Trukean ordaindu dioten pre- zio miserablea, bi euro metro karratua.

Beraz, ze aurrerapen motaz ari gara? Gure geografia gerra zelai baten modura zuloz, zauriz eta lubakiez josten duenaz? Dirua eta zementua monarkia honen errege- erregina bilakatzen dituen aurrerapenak ez

du etorriko direnen bizi- modu eta etorkizunean pentsatzen. Bost axola zaio. Eta ez dut modu nostalgikoan esaten, etsi- penez baizik. José Luisen zioen “gure herriaren aztoramen bipolarrean”, nik eskizofrenikoan erantsiko nuke. ■

Dirua eta zementua monarkia honen errege-erregina bilakatzen dituen aurrerapenak ez du etorriko direnen bizimodu eta etorkizunean pentsatzen. Bost axola zaio

Gorka Moreno Márquez

EHUKO SOZIOLOGIA IRAKASLEA

Malgusegurtasuna: malgu eta segur?

Azken urte hauetan gero eta oihartzun handiagoa du malgusegurtasun –flexi-security– kontzeptuaren inguruko eztabaidak. Hitzak berak esaten duen bezala, malgusegurtasunaren helburua lan merkatuaren malgutasuna eta langileen segurtasuna uztartzea da, tradizionalki arerio izan diren bi ezaugarri hauek bateratuz, eta *zirkulu bertutetsua* ahalbidetuz nolabait. Esaterako, Europako Komisioak malgusegurtasun ereduaren aldeko apustua egin du eta Danimarkako eredu hartu irizpidetzat. Danimarkan, lan-arauketa txikiko lan merkatua eta era berean langileen gizarte-estaldura handiko eredu garatu egin da, langileen lan-mugikortasunean oinarrituz. Horrela, adibidez, daniar lan merkatuan langile bat kaleratzea erraza izaten da; halere, langileen etengabeko formakuntzek eta gizarte-prestazio kabalek ez dute ondorio ezkorrik sortzen langileen artean, hartara, malgutasunaren *jasangarritasuna* ematen da nolabait.

Lehenengo begiradan eredu interesgarria izan daitekeela ematen du. Dena den, hainbat galdera erantzutea behar-beharrezkoa da. Lehenik eta behin, ondo aztertu behar da Danimarkako errealitatea –5,5 milioi biztanle duen lurraldea– handiagoak diren beste lurraldeetara esportatu daitezkeen ala



INIGO AZKONA

ez. Zentzu honetan, ezin dugu ahaztu Alemaniak 82 milioi biztanle dituela eta gure Estatuak 46 inguru. Bestetik, lurralde eskandinabiarren kultura eta sistema politikoak ere bereziak dira eta ikusi beharko litzateke han garatutako politika publikoak beste eremuetan hedatu daitezkeen ala ez. Ezberdintasun hauen adibide bat aipatu aldera: Danimarkako presio fiskala %30,9koa den bitartean Espainiako Estatu-koa %20,3koa da.

Honen guztiaren harira, azken finean malgusegurtasun ereduaren inguruan hitz egiten dugunean argi gelditu behar da: ekuazioaren ze aldeari ematen zaion garrantzi gehiago, baita posible ote den ere malgutasuna eta segurtasunaren arteko oreka perfektua lortzea. Izan ere, hauen konbinaketaren arabera emaitza eta ondorio sozialak oso ezberdinak izango dira. Horrela bada, argi utzi behar da lehenengo momentutik, malgusegurtasunaren benetako helburua hurrengo urteetako lan-merkatuaren inguruko eztabaidara aire berriak ekartzea den edo malgutasuna eta lan ezeگونkortasuna area-

gotzeko *marketin estrategia* edota *Troyako zaldia* den, hartara, ideia neoliberalak hainbat sindikatutan eta ezkerreko mugimenduetan barneratu eta errotu ahal izateko. ■

«
Malgusegurtasun ereduaren
inguruan hitz egiten dugunean
argi gelditu behar da
ekuazioaren ze aldeari ematen
zaion garrantzi gehiago
»

HIRUKO TXIKIAN
Joxemari Ostolaza



Joan, aurki joanen dena F. C. Barcelonatik. Bertako lehendakari izan aurrez, gu guztiok bezalaxe bere inguruan ezaguna. Elkarre horrek ezagutu duen futbol talderik helduena eta sortzaileena suertatu zaio bere aginpidearen garaioan. Ez du aukerarik galdu bere irudia ezagutarazteko. Puztu egin da, gerri bueltak salatzen dion bezala eta politikara egin nahi du jauzi, Guardiola entrenatzailearen talentua pertika. Kasualitatez ERCn zatiketa eragindako Carretero dauka bere zain, politikan ideologia baino ospea dela armarik eraginkorra jakitun. Laportak lehendakari iza-

Laporta

teari etekin handia atera dio eta futbolak eman dion itzalaz Generalitateko aulkia du jomuga. Ez dakit nik Carreterok Guardiolak adinako gaitasunik ba ote duen taldeak eta pertsonak lanean jartzeko. Ez dakit nik Carreteroren inguruan lantalde sortzailea antolatzeke pertsonak badabiltzan, beren lidergoak onartuko dituztenak. Badakidana, hamabostero laurogeita hamar mila bezero hurbil eta milioika zale urrun euren jardunaren zain ez dituztela izango. Eta hori ezean, nekez jokatu daiteke joko berean kolore berdinez eta batera. Eta sortzaileen uztaren biltzailea ez da berez sortzaile. Visca Catalunya lliure. ■

Joxemari Carrere

IPIIN KONTALARIA

Sherezade

Ilargi zaharrak mundua argitzen du. Laranja usaina zabaltzen du haize hotzak. Gauak gertaera kitzikagarria iragartzen du. Jende andana bildu da gau liluragarrian. Prozesioa hastera doa. Guztien aurrean bi lagunek irudi santua altxatzen dute. Argazki handi bat da. Argazkian emakume desiragarriaren irudia. Sherezade da. Jarraitzaileek prozesioari ekiten diote kantari, ilargiaren eta kandelen argipean. Kontalariak dira, hamaika zoko ezberdinetatik heldutakoak. Eta bere jainkosari oles egitera etorri dira: “Hitzaren erregina/ ipuinen seño-
ra/ zure argitasuna zabaldu/ maite zaituen herrira. Nire poza eta zoriona/ Sherezaderen adiskidetasuna”.

Hauxe gertatu zen Valentziako Llirian. Kontalarien VI. Topaketetan. Kristo guztiak bere santu debozionekoa izaki, kontalariok zergatik ez? Eta kontalarien debozioarako zein egokiagoa Sherezade bera baino. Dena dela, gauza gehiago gertatu ziren Llirian. Azken edizio hau heldu da ofizioan zabaldu den kezka baten erdian, alegia, profesionaltasunarena. Honen gainean hamaika iritzi eta ikuspuntu ezberdin zebilen ahoz aho, eta biltzar honetan mahai gainean jarri nahi izan da gaia. Horrekin batera, azken boladan kontalari elkarte ezberdinak



DANI BLANCO

sortzen ari dira beste horrenbeste lurraldetan. Honi gehitu behar diogu Europa mailan FEST (*Federation for European Storytelling*) kontalarien elkarte martxan jarri dela, 2009 urtean bigarren biltzarra egin duelarik. Ipuin kontaketa ofizioa zehazteko elkarretaratzeak gero eta gehiago ematen ari dira, bai alde artistikoari dagokionez, zein lan baldintzen kezka pean. Prozesu hauek, korapilatsuak eta zailak izanik ere, erakusten dute arte eszenikoen arlo honek bizia

baduela, kontatzeko asko duela. Lliriako biltzarrean era guztietako iritziak azaleratu ziren; dena dela, adostasun osoa egon zen ipuin kontaketa jardunak izan ohi duen irudi sinple eta gutxietsia aldatzeko orduan, benetako jardun artistiko serioa eta garrantzitsua delarik aldarrikatuz.

Agian topaketa hauetatik atera genezakeen ondorio nagusienetako bat izan daiteke kontalaritza heldutasun bidetik ari dela, bai jardun artistikoari dagokionez zein antolamenduan. Gero eta kalitate handiagoko lanak ikusten dira, ikerketak ere areagotu dira, baina beharbada, inportanteena izango da haurren zaintzaile sinpatikoak izatearen irudia apurtzen hasi garela. Eta gure Sherezade bidelagun izango dugu. ■

«
Lliriako biltzarrean era guztietako
iritziak azaleratu ziren; dena den,
adostasun osoa egon zen ipuin
kontaketa jardunak izan ohi
duen irudi sinple eta gutxietsia
aldatzeko orduan
»

TXANDAN

Edn Zelajeta

Autobiografia



Erdara dut ama-hizkuntza: amaren bularretan nengola, gaztelania ezetsua aditzen nuen, hain beharrezko eta hain gozo hartzen nuen esnearekin batean. Bitxia da, halarik ere: ez ama, ez aita, ez ziren gaztelaniaz mintzatu txikitan. Amak, bere arbasoek bezala, galizieraz erran zituen lehen hitzak. Aitak, antzinako ahaideei segika, euskaraz bota zituen bereak.

Parisen ezagutu zuten elkar aitak eta amak, 1960ko hamarkadan, biak frantsesez mintzo zirela. Hantxe jaio zen nik baino hamar urte gehiago dituen anaia, Berako aitona-amonekin hiru urte izan arte euskara hutsean

hezitakoa. Egun, frantsesez eta gaztelaniaz mintzo den euskaldun zaharra.

Inoiz pentsatu dut xelebrea dela hizkuntzen afera hau, nahiko nukeela zehaztu zenbateko eragina izan duen honek guztiak nire bizian: pertsona bera izango nintzateke hizkuntza bakarreko familian sortu izatera? Zer sentituko luke Avilako batek bere ama-hizkuntza eta bere gurasoenak hiru diferente balira?

Aitor dut, gauza bitxia izanagatik ere: ama-hizkuntza ez dudana euskara maite dut. Horregatik izanen da, agian, unibertsitatean euskaraz irakastearena, euskaraz idaztearena, edota, bakarrik nagoela, euskaraz pentsatzearena. ■

ZIRTA
Patxi Zuluizarreta
IDAZLEA

Salinger-en bidea

Horra hor, Harkaitz Canoren aipua: “Ez duzu letaginengatik ezagutuko beti zure etsaia: akabatu zaitzake laztanez ere”.

Iruñerriko sei bitxi denda lapurtu izana salaturik, hamalau urteko itxialdira zigortu zuten Mikel, baina Manuel adiskidearen bisitek egonaldia eramangarriago egiten zioten. Egia esatera, Manuel ere gaizkilea da, “gaizkidea” esan dezagun, izan ere, lapurretak elkarrekin egiten baitzituzten: Mikel hitz motela denez, bera beti zain geratzen zen bitxi dendetako atarian eta Manuel, plastikozko pistola lagun, harribitxiak eskurtzeaz arduratzen zen. Alabaina, Manuel ez zuten sekula harrapatzen eta Mikeli bururatu ere ez adiskide mamia salatzea: isiltasuna presoen urrezko araua da inondik ere. Denboraren poderioz, Manuel ere espetxeratu egin zuten eta, jakina, Mikelek hura ongi hartu, eta ziegakide izatea lortu zuen. Kartzelan ere eutsi egin zioten adiskidetasunari harik eta, inpentsan, bien artean liskarra sortu, eta Mikelek lagunari berealdiko jipoia eman zion arte. Antza, Mikelek noizbait ere jakin zuen, lapurreta garaian, bera kanpoan geratzen zen bitartean, Manuel dendara sartu, eta, harribitxiak eskuratu bitartean, zezelka hasten zela “A-a-tra-ku-a-a da-da ha-a-u. Sar-sartu di-di-ru-ru-a pol-pol-tsan!”. Eta kontua da poliziar bitxi saltzaileek beti egiten ziotela gizon txaparro beltzaran baten —biak ere halakoxeak baitira—, eta batik bat hitz totel baten deskribapena.

Pasadizo hau ipuina balitz, ironiaz amaiera formula arabiarr hau erabil genezake: “Hitza zilarrezkoa bada, isiltasuna urrezkoa da”. Baina tamalez pasadizoa benetakoa da, eta niri asaldura baino gehiago zalantza eragiten didaten Edorta Jimenezen adierazpenek ekarri didate gogora. Lehenago Nabarra aldizkariako letra ttikian irakurriak genizkion, baina telebistan eta



DANI BLANCO

«
Irudipena dut Edorta Jimenez *axalaz*
ari dela, eta, noiz haren alde noiz
kontra egon arren, kontuok oso
zabaldurik daudela, hemen eta han,
arteetan eta bestelakoetan. Dakidan
bakarra da auzi larriagoak
estaltzen ari garela
»



irudia:
Antton Olariaga

irratian nabarmendu arte ez dira asaldagariak suertatu (idatziak ere —esplizituagoak— izan dira Volgako Batelarienak. Ikus bestela Iban Zalduaren “Kontsiderazio gutxi batzuk, berriak eta ez horren berriak, euskal literatur kritikagintzaren inguruan” edota “Euskal idazle erretxinaren tridekalogo”). Gotzon Barandiaranek, ildo beretik, ustelkeriaren aurreko idazle on isiltasuna

salatu zuen, baina, esan bezala, nik ez dut horren argi, eta oro har, adosago nago Agustin Fernandez Mallorekin: “Adiskidetasunaren kontua funtsezkoa da. Poesian betidanik egon dira labankadak, mundu ttikia da, baina oso aitzozalea. Nire liburuan idazle izenik aipatu ez izana leporatu didate, baina ez dut estatu espainiarreko taberna zulokoa bezain falozentrikoa den belarrondokoen emanjaso joko horretan jausi nahi. Are gehiago: egon da nire liburuan bere izen-abizenez agertu nahi izan duenik, zertarako eta nik kritika nezan eta ohiko kalapita pertsonalean has gintezen, nahiz eta bera galduan irten. Kasu partikularrez baino gehiago, sistema bati buruz ari naiz, proposatu dudana sistema berri batez. Nire ustetan, adiskidetasuna literaturaren gainetik dago. Kontrakoari patologikoa deritzot” (*Mugalarri*, 09-IX-25).

Noizbait Atxagari irakurri nion artisten lagunarteetan jendea zain egoten dela norbaitek huts egin dezan hura larrutzen hasteko. Ez dakit. Irudipena dut Jimenez, funtsean, *axalaz* ari dela, eta, noiz haren alde noiz kontra egon arren, kontuok oso zabaldurik daudela, hemen eta han, arteetan eta bestelakoetan (irakur, besteak beste, Dubravka Ugresic-en *Gracias por no leer*). Edozein gisaz, dakidan bakarra da auzi larriagoak estaltzen ari garela, arazo funtsezkoagoak alegia —zer eta nola idatzi, nola eutsi oraingo irakurleari, nola egin berriak—, eta harritu egiten naizela oraindik ere nolatan jarraitzen dugun idazten, nolatan ez dugun Salinger-en bidea hartzen. ■

Animo Haiti!

I

Tektonika
ezaugarri
suntsitzaile
bat oinarri
duen faila
batek sarri
Karibea
dauka larri.
Enriquillo
beldugarri
berriz martxan
zara jarri.
Enriquillo
beldugarri
Haiti egin
duzu harri...



DANI BLANCO

V

Bizi duten
egoera
lazgarria
den gainbehera
ikusirik
laguntzera
doaz Puerto
Principera.
Batzuk, euren
izaera
bolondresa
eskaintzera.
Batzuk, euren
izaera
asekaitza
hedatzera...

II

Nahiz dardara
ezagutzen
hasterako
denak zuzen
sorospena
erregutzen
jardun, zaila
zen laguntzen...
Nola dena
apurtu zen
mundua hasi
zen beldurtzen...
Nola dena
apurtu zen
Richter bera
beldurtu zen!

III

Lurrikarak
nahaspila
sortzeaz gain
etxe pila
eraistean,
urtarrila
bihurtu zen
hilen hila.
Joan dira
ebun mila,
ene hau da
iskanbila!
Joan dira
ebun mila,
bizi hobe
baten bila?

IV

Han daukaten
negar hotsa
da benetan
aproposa
ulertzeko
zein den motza
herri xume
baten poza.
Ez al da han
den kaosa
Herioren
harrabotsa?
Ez al da han
den kaosa
bizitzaren
heriotza?

VI

Bikain bizi
den zenbaiti
esplikatzeko
zaio zailki
hiltzorian
den norbaiti
zerk egiten
dion gaizki...
Nabiz erori
zaren Haiti
nahi zaituzte
berreraiki.
Nabiz erori
zaren Haiti
berriz behar
zara jaiki!

DOINUA: Itsasoa laino dago.



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

Lluvia, Hierro y Rock&Roll

Burdinazko hiri baten soinu banda

Bilboko rockaren historia bildu nahi zuen Alvaro Heras musikariak. Bila hasi, elkarriketak egin, hemerotekak arakatu... eta konturatzerako, bildua zuen material pila erraldoia, ia Bilbo bera bezain handia. 400 orrialdetik gorako liburuaren bigarren edizioa argitaratu berri du: *Lluvia, Hierro y Rock&Roll*.

IKER BARANDIARAN

LIBURU HAU bilbainada itzela da. Ezin bestela definitu. Bilbo Handia dauka abiapuntu eta eremu. Bilbotarren historia zati handi bat kontatzen du. Bilboko kulturaren esparru oso garrantzitsu bati omenaldia egiten dio, eta emaitza bera bilbotarrak harro egoteko modukoa da. Gainera, egileak Bilbo Handia osatzen duten herri eta auzo guztietako rocka jaso du, rockaren hastapen garaietaraino atzera egin da... 1958raino! Hortik gaur egunera arte jaso-

Los Mitos taldeko kideak beheko argazkian. 60ko hamarkadan sortu zen banda, eta beraiek izan ziren Bilboko lehen rock talde handia.

ta ditu ehunka proiektu, abentura, pasarte, amets, porrot, gorabehera eta bilakaera, guztiak rockarekin lotutakoak.

Baina, antza, bilbainaden lurraldean benetako bilbainadez ez dira jabetzen; eta azkenean erakundeetan ate-joka ibili eta inork baietz esan ez dionez, Alvaro Herasek, egileak, egin du liburuaren gaineko lan guztia, argitalpena eta salmenta barne. Bankuan mailegu bat eskatu eta bere kabuz



WWW.BILBORAMA.COM


Alvaro Heras, liburuaren egilea

«Une larrienetan taldeek eta zaleek eutsi diote rockari Bilbon, autogestioaren bidez»**Noiz bururatu zitzaizun halako lana egitea?**

Aspaldiko proiektua zen, 2003an hasi nintzen lanean eta bost urte pasa nituen buru-belarri. 150 elkarrizketa izan dira. Nire musika taldeak deseginda zeuden eta rock&rollarekin lotutako zerbaitetan jarraitu nahi nuen.

Egia al da, ez erakundeek eta ez argitaletxeek ez dutela proiektuan inongo interesik jarri?

Bai. Mailegu bat eskatu eta guztia nik egin dut, diseinua izan ezik; hori Vudu-mediak egin du. Behin liburua idatzita, argitaratzeko laguntza bila hasi nintzen. Baina lur jota utzi ninduen erakundeen jarrerak. Ate asko jo nituen: Bilboko Udala, BBK, Euskaltel, Bilborock, EHU, Deustuko Unibertsitatea... Aspaldian



rocka promozionatzeko Bilbon diru dezente gastatzen da (BBK Live, Bilbo-rock, Bilbo Hiria lehiaketa...), eta uste nuen halako lan batek derrigorrez erakargarria izan behar zuela. Bizkaiko Aldundiak eta argitaletxe batzuek interes pixka bat jarri zuten, baina argitalpen baldintzak eskasak ziren. Azkenean bankura jo eta aurrera egin nuen. AEBetako eta Europako ezagunekin honetaz hitz egiterakoan, zur eta lur gelditzen dira bukatutako halako lan bati hemengo erakundeek bizkarra eman diotelako.

Lanean hasi zinenean, hartuko zuen tamainaren jakitun zinen?

Ez nuen halako liburu mardulik irudikatzen. Baina elkarrizketak eta ikerketa lanak aurrera egin ahala, informazio ugari pilatzen joan zen eta ordurako

argitaratu du Bilboko rockak izan duen entziklopedia-liburu historiko osatuena eta bakarra: *Lluvia, hierro y rock&roll. Historia del rock en el Gran Bilbao (1958-2008)*. Zorionez jendeak jakin du, erakundeek ez bezala, lan erraldoi horren tamaina eta balioa estimatzen. Lehen edizioa hiru hilabetetan agortu da; eta Herasek datu batzuk gehitu eta zuzenketa batzuk eginda, salgai jarri du dagoeneko bigarren argitalpena.

Ez dago zalantzarik: Bilbo da Euskal Herriko rockaren hiriburua; ez dute hori bilbotarrak bakarrik esaten. Nahikoa da astero kontzertuen agenda ikustea. Dozenaka dira mota eta tamaina desberdineko kontzertuak antolatzen dituzten areto, gaztetxe, taberna eta lokalak. Kafe Antzokia, Azkena, Santana 27, Bilborock, Balcon de la Lola, Bullit, Crazy Horse, Kukutza gaztetxea, Deustuko

gazte lokala... Horiek, beste askok eta mota guztietako talde andanak rockaren alorrean erreferente bihurtu dute Bilbo.

Egia da 80ko eta 90eko hamarkadetan Donostiak protagonismo handia hartu zuela, Anoetako Belodromoak eta inguruko kiroldegiek kontzertu garrantzitsuak hartu zituztelako; eta aintzat hartu behar da, baita ere, Bilbok luzaroan ez zuela kontzertu erraldoiak egiteko kokagune aproposik izan. Baina Bilbo inguruko burrundara irekiagoa, handiagoa eta interesgarriagoa izan da beti. Batez ere, bertan batutako gizabanako eta kolektiboen ekimen sutsuagatik. Horren guztiaren sustraletara jo du Alvaro Heras musikari bilbotarrak —honezker, musikaria izateaz gain, ikertzaile eta idazle tituluak ere irabazi ditu, bestalde—.

Behean, ezkerretik eskumara Cancer Moon, Platero y Tú eta Eskorbuto taldeak. Bakoitza bere garaian, Bilbo Handiko rockaren historian hiru mugarri izan dira taldeok.

ELENA GONZÁLEZ

ARCHIVO DRO



geldiezina zen. Behin baino gehiagotan liburua berregituratu behar izan dut.

Gehien harritu nauena rockaren hastapenen atala da. Zaila izango zen sasoi hartako informazioa batzea...

Bai. Interneten ez zegoen ezer —orain gutxi webgune bat abiarazi dute— eta 60ko eta 70eko hamarkadetako bibliografiarik ez zegoen. *El Hierro*, *La Hoja del Lunes*, *La Gaceta del Norte*, *Egin* eta *El Correo Español* egunkariak aztertzen ordu ugari pasa nituen. Horrez gain, elkarriketa asko egin nituen.

Zer aurkikuntza da zuretzat bereziena?

Prozesu guztia aurkikuntza interesgarri betetako abentura izan da. 70eko hamarkadako Traidor, Inconfeso y Mártir, Celula, The Word eta Familia taldeak deskubritu izana. Oso interesgarria izan da, baita ere, 80ko hamarkadako Primitivos eta Medanos de Singapur taldeen maketak entzutea. Eta nire arreta deitu zuen, era berean, jakiteak 2006an Bilbao Live Festival jaio arte, hemen

jaialdi erraldoiak egiteko saiakerek porrot egin izana: Los 10 mandamientos del rock, 1978an; Rockazoka, 1999an; eta Bilbao Accion Rock, 2003 eta 2004an.

Zerk edo nork eutsi dio rockaren garrari Bilbon?

Une larrienetan jarraitzaileak eta musika taldeak izan dira, batez ere autogestioaren bidez. Garai luze batean —ez da aspaldiko kontua— rocka ez zegoen modan eta erakundeek eta jarraitzaile askok ez zuten babesten; bazirudien rocka gaizki ikusita zegoela. Lokalak itxi eta kontzertuak egiteko mota guztietako trabak jartzen zituzten. Garai horietan hainbat talde eta gizabanakok itzelezko lana egin zuten kontzertuak antolatzen, fanzineak argitaratzen, irratsaioak egiten eta gustuko taldeen diskoak kaleratzen. Orain badirudi rocka nolabait “instituzionalizatu” egin dela: makrojaialdiak, lehiaketa subentzionatuak, udalen entsegu lokalak eta aretoak... Babesa gauza ona da, horretarako borrokatu zen, baina nik faltan botatzen ditut iraganeko freskotasuna eta autogestioa lantzeko gaitasuna, nahiz eta oraindik badien halako talde eta gaztetxeak.

Orriotara ekarri dugun liburuak 460 orrialde ditu, eta tamaina horri esker rockak 50 urtean eman duena ezagutu dezakegu; horretarako, protagonistengana jo du, baita garai bakoitzeko hedabideetan argitaratutakoa arakatu ere. Bidaia 1958an hasten da Los Optimistas taldeak EPa kaleratu zuenean eta Soroak laukotea hasi zenean. Haiei 60ko hamarkadan orkestrek, Los Espectros eta Los Crazys bezalako taldeek eta *matinée* formatuko kontzertuek jarraitu zieten. Eta hamarkada bukatu aurretik, Los Mitos, Bilboko lehen talde handia jaio zen. Haiekin eta

Los Belasekin lehenengo diskoteka-garitoak eta disko dendak zabaldu ziren.

70eko hamarkadarekin, Bilbora lehen talde atzerritarrak etortzen hasi ziren: Golden Earring Ayala antzokira, Uriah Heep eta Suzi Quatro La Casillara... Gerora, Zanahoria Eléctrica moduko taldeek erreleboa hartu zuten, eta Fase, Isidoro y su colección de puertas plegables, Medanos de Singapur, Zarama eta Enbor bezalakoen txanda iritsi zen.

80ko hamarkadarekin punkaren eztanda etorriko zen eta Ezkerraldeak lehen baino protagonismo handiagoa hartu, egoera ekonomiko

latzak eta biztanleria multzokatuak bultzatuta. Musika lehiaketak biderkatu eta Hilargi kontratazio agentzia sortu zuten, gutxira Hilargi-Discos Suicidas bihurtu zena. Luza-roan erreferente izan zen Gaueko aretoa zabaldu, fanzineen eta irratiaren eztanda gertatu... eta 1989an Bilbo Hiria musika lehiaketa sortu zuen Alternatiba promotorak, Udalak eskatuta.

90eko hamarkadan, musika estilo gehiagok argia ikusi zuten. Bilboko Gaztetxea okupatu zuten —gerora, gaztetxearen eta Gauekoren hutsunea estaltzeko, En Canal zabaldu zuten—, *El Tubo* musika aldizkaria jaio, eskuin ibarreko taldeek Getxoko Aularen eta Gwendolyne aretoaren inguruan garrantzi handia hartu zuten... eta 1997an Udalak Bilborock zabaldu zuen.

Historia hori guztia hamarkadaka banatuta dago eta horrez gain, egunkari eta aldizkariak, irratiak eta fanzineak eskainitako kapitulu mamitsuak ere batu ditu Herasek. Punkak ere badu bere toki bereiztua, baita rockerrek, rock gogorrek, heavyek, Eskorbutok eta drogek rock-and-rollean izan duten eraginak ere. Eta, jakina, Bilbo Handiko rockaren historian zeresan handia izan duten protagonisten —ezezagun eta ezagun— ahotik jasoko ditugu azalpen, bizipen eta pasarte horiek. ■

www.myspace.com/historiarockbilbao
helbidean liburuari buruzko informazio gehigarria



Liburuak


KRITIKA

Garazi gerezi.

Testua: Leire Bilbao. Irudiak: Estibalitz Jalón.

Gero.

25 orrialde. 6,50 euro.



Haur eta gazte literatura

Xabier Etxaniz Erle

Gerezi ipuina

HITZ JOKOA ematen du Gero argitaletxeak album eta haur liburuaren arteko bilduman kaleratu duen liburu honen izenburuak. Pertsona izenak fruituarenarekin duen erlazioan oinarritutako jokoa. Baina kontakizunaren azalean geratuko ginateke Leire Bilbao idatzi eta Estibalitz Jalónek ilustraturiko kontakizun honen komentarioa horren inguruan eraikiz gero.

Garazi da istorio honen narratzailea, eta lehen pertsonan egini-ko narrazioan oso giro pertsonala eta intimista azaltzen du hasiera-hasieratik: “Nire amonak gereziondo bat dauka. Urtaro guztietan egoten da loretan. Umea balu bezala zaintzen du gereziondoa amonak”. Eta hain zuzen gerezien inguruan dago eraikia ipuin guztia. Amonak gorde egiten dituen gereziak, amak amonaren gordelektutik ezkutuan lapurtzen dituenak... eta, azkenik, Garazik eskuratu nahi dituenak.

Bai, ipuin honetako protagonistak hiru emakumezko horiek direlako, hiru belaunaldi, hiru emakume, hiru pertsona “gerezi garapen” ezberdinean. Amonak gereziak jan ohi ditu, amak noiz-behinka lapurtu ondoren, eta Garazik... neskatzari gertatzen zaiona jakin nahi duenak ipuinaren amaiera irakurri beharko du. Izan ere, gerezi jateak ondorioak omen ditu, “Heldu gabe jaten badituzu haizeak eragingo dizkizute”, eta haize horietan oinarrituta errealismotik fantasiara egiten du jauzi idazleak; amonak eta amak –gereziak jatearen ondorioz, jakina– hegan egiteko ahalmena dute eta Garazik, lehenengo bata eta gero bestea, hegan harra-patuko ditu: “Amonak ez gintuen espero. Musika klasikoa zeukan jarrita tokadiskos zaharrean. Oinutsik zebilen, trapua esku batean, erratza bestean. Oinak airean. Tximini zulotik atera da. Aspaldi garbitu gabe zuela esanez desenkusatu da”.

Narrazioa, ikusi ahal izan den bezala, esaldi laburrez osaturik dago. Egoera, sentimendu, ideien deskribapen labur eta zehatzak. Haur baten narrazioa, haur baten kontakizuna.

Fantasia, konplizitatea eta feminismoa –protagonista guztiak emakumezkoak, liburuaren tonua, irudiena eta testuarena...– azaltzen zaizkigu Garaziren ikuspuntutik narraturiko istorio honetan. Irudietan ere, idatzikoan bezala, nabaritzen da hori guztia. Estibalitz Jalónek gerezien kolorea presente jarri du irudi guztietan. Soinekoe-tan, lurrean edo aurpegietako masailetan gerezien presentzia nabaritu-ko dugu, agerian egon gabe, ikusi gabe, baina giroan beti presente sentitzen ditugun gereziak. Fruitu horiek guztiz oinarritzekoak baitira ipuinaren argumentuan, azken finean Leire Bilbaoren eta Estibalitz Jalónen kontu hau gerezi ipuina baita. ■

Gipuzkoa Mari-lur eta Mairu-lur aldi berean

Bi liburu kaxa berean: Joxe Ramon Zubimendiren *Gipuzkoa Mari-lur* eta Juan Antonio Urbeltzen *Gipuzkoa Mairu-lur* batera plazaratu ditu Elkar argitaletxeak, edizio handiosean. Probintziaren mitologian barneratu dira bi idazleak, bakoitza bere ikuspuntutik noski: Urbeltzek, lehenago ere landu izan duen gaia hartu du, mairuarena. Egileak aurkezpenetik argi utzi du ez duela

islamari buruz hitz egiten, Mendebaldeko kulturaren metafora bati buruz baizik. Zubimendiren liburuak berriz, Mariren mitoaren bidez, Gipuzkoako historia metaforikoan murgil egin nahi izan du. Mitologia eta Gipuzkoa uztartzen dituzten bi liburu, beraz; biak ere, argazki eta ilustrazio ikusgarri hornituta plazaratu dira. ■



Gipuzkoa...

J.R. Zubimendi /

J.A. Urbeltz.


Elkar.

189 + 273 orr.

35 euro.

Nanoteknologiari buruzko lan dibulгатiboa

Iraultza: hitz horrekin lotu dute Unai Martinez Lizardui eta Alain Urizarrek nanoteknologia. Gaiak argitaletxearekin publikatu dute *Nanoteknologiaren iraultza* lan dibulгатiboa eta liburu horren orrialdeetan mundu mikroskopikoaren azterketak izandako gara-pena azaldu dute. Sarrera orokor batekin hasten da liburua: nanoteknologia zer den, nanounibertsora nola iritsi, mikroskopioen asmakuntza eta garapena... Hortik aitzinera, aplikazioetaz kezkatu dira: medikuntzan eta arlo militarrean bete dezakeen funtzioaz, besteak beste. Liburuak galdera ugari ematen die erantzuna, nanopartikulen balizko arriskuari buruzkoei, kasu. ■



Nanoteknologiaren iraultza.

Unai Mtz. Lizardui / Alain Urizar.

Gaiak.

155 orrialde. 18 euro.

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Crazy party!!
Los Cretinos.
Pantano Records.
Iraupena: 29'29".
8 euro.

Zingiretako garagearen espiritua gure artean bizi da

ARRASATEAR HAUEK irla bat dira, hirietatik kanpo musika taldeek ez dutelako rock-and-roll eta garage doinu zaharretan murgiltzeko ohiturarik. Hala ere, urte dezente daramatzate beraien bidean, eta kanpoan etxean baino arreta handiagoa egiten diete. Dagoeneko bigarren diskoa kaleratu dute eta hau argitaratzeko Valentziako diskoetxe baten laguntza izan dute. Orain arte punk zipriztinak zituen rock-and-rolla egin badute ere, oraingoan,

batez ere teklatuak lagunduta, garagean murgildu dira eta ezer asmatu ez badute ere, giro eta lelo egokiak idatzi dituzte, beti ere erritmo handikoak. Gaztelaniaz abestuta, gai dira Fuzztones, Cynics edo Miracle Workersen espiritua gugana ekartzeko. Hori gutxi balitz, beste sesio batean grabatutako hiru bertsio klasiko eta ramoniano ere oparitu dizkigute.

www.myspace.com/cretinosrock

Los Cretinos

«Ardiak garela ematen du: berdin janzten, kontzertu berak ikusten, disko hori ez badaukazu ez zara inor...»

Disko batetik bestera denbora nahi-ko pasatzen da, eta askotan ordurako abestiak erre egiten dituzue...

Bai, patxada nahikoa daukagu eta ez dugu presioarekin lan egin nahi izaten. Jada kanta berriak ateratzen ari gara eta asko baztertu ditugu, gustura gelditu arte. Egia da diskoa kaleratu ordurako abesti horietaz nekatu egiten garela, aldrebesak gara horretan.

Non aurkitu duzue Electric Amai? Kantuek asko irabazi dute...

Aspalditik ezagutzen genuen, baina ez genekien teklatura jotzeko gai zenik. Parranda batean esan zigun jotzen ausartuko zela. Lehen entsegutik primeran joan da guztia. Diskoko abestiak eginak zeuden, baina asko aberastu ditu Farrisarekin eta hasi da hitzak idazten. Gure altxorra da!

Disko honetan rock-and-rolletik garagera

salto egin duzue... Eta emaitza ederra da.

Bai. Garage-punkera. Guk Rock-and-rolla maite dugu, baina batez ere musika zuzena. Punka entzuten hasi ginen eta gero konturatu ginen bazeudela beste estilo batzuk ere, ilunak, zuzenak... Diskoko kantak Londresen egin genituen lehen kontzertuetan inspiratuta daude: Hare Krishnak, jaiak, hango ligeak... Diskoa bi txandatan grabatu duzue...

Bai. Kasualitate bat izan zen. Diskoa Oñatin grabatu genuen DJ Kirrinekin, eta bera hip-hop zalea bada ere, oso soinu garageroa lortu zuen. Horren ostean, Rumble Recordsekoek gugana jo zuten bilduma baterako grabatu gabeko kanta bat eskatuz. Esan eta egin... Lobo Electricoko Guantxekin batu eta lau bertsio grabatu genituen: hiru disko honetako bonusak eta Kinksen bat Rumbletazat.

Mi moda soy yo. Gustuko dut zuen slogana...

Londresen asmatu genuen. Hainbeste itxurakeria, eta gero funts gutxi. Esan nahi du gure bide propioa egiten dugula. Askotan ematen du ardiak garela: berdin janzten, kontzertu berak ikusten, disko hori ez badaukazu ez zara inor... Nazkatuta gaude kontu horietaz. ■



Ezpalak

JON TORNER

Eibarko Antzerki Jardunaldiek hilabete baino gehiago iraungo dute

ORAIN ARTEKO ediziorik luzeena izango da aurtengoa. Eibarko (Gipuzkoa) 33. Antzerki Jardunaldiak hilaren 10ean hasi eta martxoaren 26ra arte luzatuko dira. Aurreko zazpi edizioetan bezala, giza estatuen erakusketak irekiko du jaialdia. Ikusgai izango diren euskarazko emanaldien artean daude, besteak beste, Galder Perezen *Anbotoko Mari eta orrazi galduta*, Ez Dok Hiruren *Euskarazetamol*, Asier Hormaza eta Ramon Agirre aktoreen *Arrastoa* eta Antzerkiola Imaginarioa taldearen *Babiloniako loreak* antzezlanak. Egitarau osoa eta informazio gehiago Eibarko udalaren webgunean dago eskuragai: www.eibar.es.



Orain ehun urteko Paris ezagutzeko aukera Kursaalean

Duela 100 urteko Paris hirira egingo dugu bidaia Donostiako Kursaaletako Kubo-Kutxa aretoan, apirilaren 5a arte ikusgai izango den *Paris, 100 urte* izeneko erakusketaren bitartez. Estatu frantseseko hiriburuan sortutako abangoardiako artea ezagutzeko aukera eskainiko du erakusketak. Renoir, Van Dogen, Picasso eta Chagall artisten obrak bildu dituzte, besteak beste.

Itziar Larrinaga musikologoak eta Jose Antonio Echenique Donostiako Musika Hamabostaldiko zuzendari ohiak jasoko dute Donostiako Orfeoia-EHU saria. Sari banaketa otsailaren 19an izango da, EHUn Gipuzkoako Campusean.

Euskarabila elkarteak (Basauri, Bizkaia) antolatutako 15. Ipuin Erotikoen Lehiaketa abian da jada. Lanek euskaraz idatziak izan behar dute, eta bi eta hamar orrialde artekoak. 2010eko apirilaren 23a baino lehen aurkeztu behar dira. Ipuinik onenaren egileak 600 euro jasoko ditu, bigarrenak 400 euro eta Basauriko onenak 250 euro.

Ibon Uribarri zarautzarrak irabazi du Arrasate Euskaldun Dezagun (AED) elkarteak eta Elkar argitaletxeak Literaturako Nobel saridunak euskaratzeko antolatzen duten Jokin Zaitegi itzulpenlehiaketa. Sariak emandako laguntzaz Herta Muller-en azken liburua, *Atemschaunkel* (Arnasaren kulunka), itzuliko du Uribarrik.

Keu Agirretxeak *Denbora vs. kantuak* diskoa Interneten zabalduko du doan. Urrira bitartean, hilean abesti bat sareratu du. Kantak eskuragarri izango dira www.keuagirretxea.com eta www.hotsak.com webguneetan. Diskoaren grabazioari buruzko berriak www.myspace.com/keuagirretxea blogean jarraitu ahal izango dira testu, argazki, audio eta bideoen bidez.

● **Karlos Linazasoro idazleak *Diario Vascon*:** «Hitz apokaliptikoak entzuten dira aspaldion gure literaturari buruz (...) ez dagoela irakurlerik, ez dela libururik saltzen. Eta orduan negarra dator argitaletxeen begietara, eta lanturu mingotsa idazleen aho-zulora. Hau guztia badator behera. Bestalde, orde, inoiz baino hobeto omen dago gure literatura kalitatez zein kantitatez, eta hementxe arazo humanistiko-existential bat planteatzen zaigu: zertarako idazleonek ahalegin nekagarri eta eskergabe izugarri hau, lubakiaren beste aldean inork ezer irakurtzen ez badu? Zerk egiten du huts? Edo, dena da idazleonek erretxinkeria eta ezin konformatze gaiztoa? Noiz dago idazle bat konforme? Zenbat sari, aipu eta lore, elkarrizketa, zenbat irakurle behar ditu zorioneko izan dadin?».



● **Karmele Jaio idazleak *Berrian*:** «Argi daukat idazten baldin badut esan nahi dudana zerbait esateko izan behar duela. Ez naiz hasiko, adibidez, abenturazko nobela bat idazten gai batzuei buruz nahikoa idatzi dudala uste dudalako eta gai berriak behar ditudalako. Ez dakit zer izango den idatziko dudana hurrengoa, baina beti izango da nire barruan sortzen den zerbait, idazteko beharra sentitzen dudana zerbait. Ez dut sekula originaltasunaren mesedetan beste gai edo mundu diferente bat bilatuko. (...) Nobelak pisu handiagoa du merkatuan, komunikabideetan eta abar. Eta uste dut horregatik direla ezagunagoak nire nobelak ipuin liburuak baino; eta ez nire nobelak ipuin liburuak baino hobeak direlako».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

Abarrak

UNAI BREA

Salaketa izan nahi bazuen, ustel atera zaio

Celda 211. Zuzendaria: Daniel Monzón.

Aktoreak: Luis Tosar, Alberto Amman, Marta Etura, Antonio Resines. Espainia/Frantzia. 110 minutu.

ORRIALDE HONEN beheko aldean ageri den datan, Espainiako zinemaren Goya sariak banatuko dira, eta *Celda 211* filmak eramango ditu horietatik ez gutxi, baina seguruenik ez hainbeste ere, nire ustez. Hamasei hautagaitza ditu, baina *Agora* dauka arerio nagusi, eta badakigu zein luze duen Amenabarrek itzala.

Sariekin ala gabe, *Celda 211*-k ikusle asko maitemindu ditu. “Bikaina!”, “aspaldi ez da halako lan txukunik egin Espainian!”, irakurri dut han-hemenka behatu ditudan blogetan. “Espainiarra ere ez dirudi!”, ausartu da bat. Blogosfera zabala da ordea, eta kritika txarrak ere kabitzen dira barruan. Ni ez naiz bereziki aditua zineman, ikusle soila besterik ez, eta pelikula gustatu zait, esan nahi baita ordu eta erdiz entretenitu nauela, baina kritika batzuk aintzat hartzekoak iruditu zaizkit.

Pelikulari leporatu dioten akatsetako bati helduko diot: narrazioak kasualitate gehiegiri esker egiten du aurrera. Gertakari sinesgaitzak banan-banan hartuta, zer esanik ez denak batera. Filmaren hasiera, ondorengo guztia ahalbidetuko duena, hanka eta bururik gabeko egoera bat da. Juanek Zamorako espetxean lanean hasi behar du, funtzionario. Lehenbiziko lan egunaren bezperan, bertara doa, kartzelako nondik norakoak ezagutzeko asmoz, eta hara non une horretan presoak matxinatu egiten diren. Juan matxinada-

ren erdian harrapatuta gelditzen da –hori lortzeko gidoiak egindako kabriolak esplikatzek luzeegi joko luke–, eta bera ere espetxeratuta dagoela sinestarazi behar die presoei, bertan akabatu ez dezaten.

Hasieran, Juan kanpoko lankideei laguntzen saiatzen da, ezkutuan, baina pelikularen amaieratik hurbil matxinatuekin bat egin eta Madriletik bidalitako negoziatzaileen aurrean espetxeko egoera latza salatzen du. Ikusi ez dutenei ez izorratzearren, ez dut esango filmak egoera horretara iristeko zer bide egiten duen, baina bai kasualitate ikaragarritz betetako bidea dela, *mcguffin* bezala erabilitako ETako hiru kide eta guzti.



Ez daukat argi *Celda 211* espainiar espetxeetako egoera salatzeko erabili nahi izan duen Daniel Monzón zuzendaria. Hala izan bada, ahaleginak ez du sinesgarritasunik. Batetik, barruko bizimodu arrunta ez duelako erakusten –hasieratik amaierara, presoak matxinatuta daude–; bestetik, ez dakigulako seguru Juanen aldarria zintzoa denez, izan ere tragedia pertsonal batek bultzatu du bere kideak zirenen aurka jartzera. Tragedia horren erruduna funtzionario bakar bat da, funtzionario txarra, frankismoaren oinordeko petoa, baina sistemari ezin zaio ezer leporatu; espainiar espetxe politika ez da ankerra *per se*. Kontua da, Alvaro Reizabalen liburu baten izenburuak zioen bezala, “badakigula nolakoak diren etxe hauek, aizue”. Kartzeletako egoera horrelakoa da berez, ez dago aldatzerik, eta errua ez da inorena. Hori da niri iritsi zaidan mezua.





EGUZKILORE®
Zuluaga

DONOSTIA: Hernani, 13 - **BILBO** - GASTEIZ
Zuluaga Bitxitegiak: Galdakao eta Zornotza

www.eguzkilorejoya.com

ANA ZAMBRANO



INIGO AZKONA

BEGIRADA NORI	EROSTA, AUHENA ATOMO KARGATU	ZIMUR	 INIGO AZKONA		TXORI MOTA KOBREA	PERTSONAIA- REN IZENA SUSTANTZIA TOXIKOAK	MULTIZOKA FUSIL ARINA ETA MOTZA
BERORIK EZA ZILEGI					KORU KIROL- LEHIAKETA		
			HURBIL APALKI	ALTUERA OIHANEKO ERREGE			
KILOA EUSKAL HERRIKO MENDIA	AZPIKOZ GORA JARRI AZKENIK				EGOKIAK HAGOAN, OREKAN		
		JAITAKO HITZALDI BEREZI ALEKA				HERRI HIZ- KERAN, BADA MODURA	
PIL-PILEAN PRESTATZEN DEN ARRAIN	ZUREZKO JOSTAILUA MINERAL KOLOREDUNA		OKELA AITALEHENA				MAHATSON- DOAREN ADAR
					EKITEKO EKINTZA AGIRIA		
GERMANIOA ERLIJOZKO KANTA, FLIZ KANTA		TEMAK, SETAK LEHERGAI EZAGUNA				HEGAZTI SARRASKI- JALE, PUTRE ALAITASUN	
				SOINGAI- NEKOA ZILARRAREN SINBOLOA			HIDROGENOA LEONARDO ... CAPRIO, AKTOREA
...EGIN, AMUAN HOZKA EGIN PERTSONAIA- REN ABIZENA			KONTSEILU KONTSO- NANTEA				
					JAGOLE		

Kike Amonarrizzen umorea

Ertzainak istripua gertatu den lekura heldu dira. Autoak bide bazterra jo du eta aurrealde guztia txikituta dauka. Gidaria kanpoan da, herrenka dabil eta mukizapiarekin sudurreko odol-jarioa gelditu nahian ari da.

– Zauri larririk bai?

– Ez dakit! –erantzun die politikariak–. Oraindik ez dut nire abokatuarekin hitz egin!

Mutilak beste batekin harrapatu du ohean bikotekidea:

– Ikusten? –esan dio bikoteki-deak ohe-lagunari–. Esan dizut. Mutil hau seko txorrea da!

	B	I				K	M	P
Z	E	N	I		T	U	P	I
H	O	T	Z			K	O	R
H	A	I	Z	U	H	L	U	Z
K	I	R	A	U	L	I	O	N
J	O	A	R	P	R	E	G	O
		Z	I	B	A	H	A	R
B	A	K	A	I	L	A	O	E
G	E	H	I	S	I	A	K	S
K	A	N	T	I	K	A	P	A
	T	E	N	K	B	A	T	Z
G	A	Z	T	A	N	A	G	A
							Z	A
							I	N

Barne hartzea
#kanpo uztea



goizeko 7etatik oren 1 arte

IRRAT'6

otsaila larunbata
20

larunbata

**Integrazio
Batzordea**

16, LARREGI ETORBIDEA 64500 DONIBANE LOHIZUNE






ANTOITATZAILEAK



Ezberdintasuna barne hartu nahi duen eskola baten **PARTAIDE** izan.



LAGUNTZAILEAK



PARTAIDEAK




Ihesi

IRATI JIMENEZ

Argazkiak: Iñigo Azkona

Euskal Herria ezagutuz:

Urdaibai (Bizkaia)

Bihotzgoran, bihotzberan, bihotzferan

Beti gustatzen zaie. Kanpotarrei, lagunei, bisitan ekartzen ditudanei. Beti gustatzen zaie nahiz eta nik asmatu ez zergatik maite dudan azaltzen. Joaten gara Mundakako portura, Gaztelugatxera, Txatxarramendira eta gustatzen zaie. Argazkiak ateratzen dituzte, ederto bazkaltzen dugu. Eta hala ere ni beti sentsazio horrekin, zerbait falta dela, ez dutela ikusi benetan Urdaibai den bezain eder, bere lilurarekin ez direla ahal bezain beste liluratu, txunditu, aho zabalik geratu. Kostata baina konturatu naiz ez direla eurak, neu naiz.

Ez dakit Urdaibairi buruz hitz egiten.

Mundakako portua.





Portuondotik ikusten da Urdaibai beste inondik baino hobeto. Anboto ere ikus daiteke, egun argiz.

PORTUONDOKO BEGIRALEKUAK berbak osten dizkit, madarika-tuak. Handik ikusten da Urdaibai beharbada beste inondik baino hobeto. Sukarrietako azken etxea atzean utzi eta berehala agertzen da, txikitan olgeta-leku moduan erabiltzen genuen Mundakako hilerriaren oinetan. Portuondo, berezko talatxoa, Laidako hondartzaren aurrean. Handik ikusten da Kanalak baso bete, Atxarre eta Ereñozarrera igotzen dena. Itsasotik mendira hiru-lau kilometrotan, ti-ta batean. Basagunea, kostaldean bertan. Izaro ere, hantxe dago, itsasmugan. “Hara” esaten diet lagunei argazkia ateratzera doazenean, “hantxe dago Izaro uhartea, txikitan amets egin nuen itsasoa lehortuko zela egunen baten eta oinez joango nintzela bertara”. Ametsa ez da bete, ez ditut inoiz igo ustez Gaztelako Erregina Katolikoa-arentzat egin zituzten harrizko eskailerak, bere senarrak aspaldi igo zituenak. Izarora joatea debe-

katuta dago eta erregeen bidea kaioek baino ez dute erabiltzen, arrautzak erruteko. Frantziskotarren komentuari geratzen zaion horma bakarra ere euren da. Ez monarkiarik, ez elizarik, *long live* Urdaibaiko itsastxoriak. Euren da erreinua (amen).


Anboto ere ikusten da Portuondotik, eguna argia bada. Oka ibaiak aiztoa dirudi, iparraldetik hegoaldera marra perfektua egiten duen labana, Bizkaia ia erdiraino zatitzen duena. Marea gora, itsasotik jaten du mundua eta haxe da

**Oka ibaiak aiztoa dirudi,
iparraldetik hegoaldera
Bizkaia ia erdiraino
zatitzen duen labana**

gure berezko Venezia. Marea behera, erraz ikusten da zergatik geratzen diren bertan Afrikara doazen hegaztiak. Geologia ikastera datoz eta bi milioi urteko txo-

rririk balego itsasoa Historian atzerantz doala kontatuko liguke, kosta barruan hamabi kilometro gehiago sartzen zela aspaldi. Zelan aldatu zaren, Urdaibai, zelan aldatzen zaren egunero. Zenbatetan esan diedan lagunei, bisitariei, kanpotarrei, Portuondoko bistak ikusteko hamabi ordu behar direla, hiltera eta hilgora konparatzeko. Laida ikusteko, hondartza zabal eta estu eta metamorfikoa benetan ikusteko. Itsasoa sartzen denean egiten du sistolea eta ura erretirtzean diastole ikusgarria. Zoragarria da udan, haize freskoak jotzen baitu itsasotik. Olatu ausartak iparraldean, ur bareak hegoaldean. Surf or windsurf, *man*, jolas ala igeri ala biak. Joateko modurik onena Mundaka edo Sukarrietan ontzia hartzea da, ontzi zuri-urdir-gorria, bertakook *gasolino*a deitzen duguna.

Jakingo banu Urdaibairi buruz hitz egiten zera esango nuke, beste ezer baino gehiago horixe dela, agertzen eta desagertzen den hon-



dartzaren misterioa, goizean eta arratsaldean bi paisaia desberdin diren pasaia bakarraren misterioa. Goizean bat, desberdina iluntzean. Gauean, Portuondotik begiratuta ibaiaren beste aldean autoen argiak ikusten direnean. Gernikatik Lekeitiora doaz, Lekeitiotik Gernikara, bihurgunez bihurgune, keinuka edo Arteagako gure amaren amak esango lukeen bezala, *kikuke*. Beste amumak, aitarenak, ez zuen autoetan sinisten eta argi haiek lamiak zirela uste zuen. Desideria Ibinarriaga Bermeo sor-

gina zen eta Portuondon zegoe-nean otoi egiten zuen, beti. Han goian, hilerrian zeuden hildakoen arimengatik. Beti ari zen, hildakoen agerpenez hitz egiten. Izekori esaten zion otoi otoi otoi egiteko, hildakoak ez zitezen agertu. Agertzekotan, hobe maite izan zaituztenen arimak, esaten zuen, “horreen beldur ez da euki behar”. “Maite izan bazaituzte, lasai, esaten zuen”. Hori bai, “maite ez bazintuzten...”, kontuz.

Amuma Desi maitea. Jakingo banu Urdaibairi buruz berbetan, ze

eratako sorgina zen kontatuko nuke eta galipotaren usainak bere irudia ekartzen didala gogora. Hori baita bestea, usaia. Zelan azaldu nik lagunei –bisitariari, mugaz bestaldeko kontaktuei–, Urdaibai ikusteko argazki kamera berria behar dutela, galipotaren usaina gordeko duena eta Bermeoko fabriketatik ateratzen den kiratsaz hitz egingo duena. Giza jardunaren usaina, lantegieta-ko hatsa, gasolina orbanak portuan. Horixe ere bada Urdaibai. Ez oreka perfektua, baita kaioen gorotzek lehortu duten Izaroko paisaia ere eta ustelak herdoildu duen Mundakako Larrinaga Jauregia eta giza anbizioaren usain sarkorra. Triasikoan buztinak mugitu zuen harria eta batzuetan halaxe sentitzen dut Urdaibai. Ikusten ditut aldatzen bazterrak, etxe berriak Gernikatik Bermiora, Kanalan eta Arteagan eta hemen eta han eta Triasikora goazela sentitzen dut, berriro. Hartu egunkaria eta hortxe dago pelikada hori, buztina harriaren kontra. Niri, buztinaren duina gus-tatzen zait eta urdeen ibai honek liluratu egiten nau. Horregatik ezin dut idatzi, lilurak jan dizkit esaldiak.

Urdaibaikohotsak

Ahalko banu, belarriekin idatziko nuke. Esango nioke bisitariariitsu etortzeko, gorrieria sendatuko zaio-laberehala. Entzungo duela Gernika jendez beteta zapatu gauean, algara baten, eta entzungo duela itsasoa Bermioko portuan, *rompeolasaren* kontra, apurtu arte belarriak eta harriak. Esango diot, inon baino gehiago Bermion jarri behar duela belarria. Joan *Kansa* deitzen duten portuko leku horretara –Campsaren biltegia zegoen lehen eta handik izena– eta entzun paseoan doazenak. Joan portura, entzun tabernetako gizonak. Hau armadorea, hau tostartekoa, hau makinis-tea, denek ozenegi egiten dute berba, ontziaren motorra piztuta balego bezala. Lurrean ere, itsasoan bezala. Joan nire umetako logelara, eta belarria horman jarrita entzun amaren ilecapaindegira datozen emakumeen aldarriak, kantuak, eztabaidak, koloreak. Algaraka sartzen dira. Beroegi bada “zer da, beruri!” eta hotzegi badago,



Urdaibai: agertzen eta desagertzen den hondartzaren misterioa, goizean eta arratsaldean bi paisaia diren paisaia bakarraren ministerioa.



“txuuuuut, hotzari!” Bokarta eta gatzaren sekretuak ezagutzen dituzten andreak dira, herriaren sarea egin dutenak gizonek itsasoa arraina hartu duten artean.

Bermio: gazi, bizi, kontraesankor

Bermio ez da Erdi Aroan izan zituen 30 dorreetatik zutunik geratzen den Ercillarena. Orain itsas museo egin dutena, herriko ezkutuan agertzen den balearen leienda dakiena, araukanoen aurkako gerren gorazarre egin zuen Alonsotarraren izena gordetzen duena. Ez. Bermio ez dira udal-txearen plazan gora Talara doazen harrizko kaleak; ezta San Juan portala ere, antzinako harresiari geratzen zaion begi bakarra. Ez. Bermio munduko euskararik zikinena, arinena eta abilena da. Umetan ikastolako autobusean abesten genuena. “Aiaufala, aiufala, gora eta behe- ra, behe- ra eta gora, txoferra txize daijxola!” Andra Mari jaietan, Urdaibai Urdaijai bihurtzen duen udaren hondarrak oraindik sutan daudenean entzuten dira han edo hemen antzinako alfabeto onomatopeikoren baten idatzitako kankak. *Tragola tragola tragola soijie, itsasorako otzarie*. Sollubek eta itsasoak eta bermiotar izatearen

militantziak egin dute Bermio desberdin, erdi zoro, gazi, bizi, kontraesankor. Mundakako amuma Desik gorroto zuen, Urdaibaiko herrien arteko ezin- kusirik ezagunena bere egiten zuen. Izekori esaten zion “zu, trankil, umea, etxe honetatik zuen amak botaten bagaitu be, ez gara Bermiora joango!” Madale- na eguna da herrien arteko zau- riaren gorazarre egiteko momen- tua. Ezin dutela elkar ikusi ospatzen dute, Izaroren jabetza- gatik haserretu zirela aspaldi eta horrek merezi duela Elantxobe- ko aldatzetan gora eta behe- ra mozkorraldi historikoa. Urdai- bairi buruz nola ikasiko dut, ba, idazten, Urdaibai ezin bada ira- kurri, edan egin behar bada Santa

Ikusten ditut aldatzen Urdaibaiko bazterrak, eta Triasikora goazela sentitzen dut, berriro

Katalina egunean San Antonioko jaietan, San Migeletan, San Pedro egunean, San Juanetan, San Rokeetan eta (*mundakarrentzat egun obarik ez*) Mundakako Ara- tusteetan, gizonak gitarradun

atorrak direnean eta emakumeak begi beltzezko lamia dantzariak.

Jango zintuzket, Urdaibai, Ara- tustetako tostadak jaten diren moduan. Abestuko zintuzket, Busturialdea, jakingo banu zelan. Igerian hartuko zintuzket, Matxi- txakotik Ogoñora, lurmuturretik itsaslabarrera, Gaztelugatxeko peninsularen begi zuloen azpitik pasata. Baina ezin zaitut jan, abes- tu edo igerian hartu eta Portuon- dotik erakusten zaitut. Lagunei, bisitariei, kanpotarrei, tren- ez etor- tze-ko eskatzen diet, Gernikatik Bermiora. Azken kilometroak gure aitzitxe Antoniok eta beste gerrako presoek egin zituzten, ez dakit orduan zekiten buztinaren eta harriaren, hondartza meta- morfikoan eta padura isilen histo- ria geologikoan ezinbesteko lana egiten ari zirela. Urdaibairen bur- dinazko bizkarrezurra eraikitzen ari ziren.

Leku honi buruz idazten jakin- go banu, bisitariei, kanpotarrei, lagunei nik esandakoa ez irakur- tze-ko eskatuko nieke. Badu gure bazter honek, Izarotik Arteagako Gaztelura, Lagako hondartzatik Gernikako arbolara doan mundu honek lilura bat, halako magia hori. Baina ezagutzeko ukitu egin behar da. Ez idatzi, ez irakurri. ■

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURA

Zetazeoak, arrantzaleen lehiakideak

GURE ARRANDEGIETAN ohiko bihurtu da kanpotik ekarritako arraina ikustea. Kantauri itsasoko legatzarekin batera Afrikakoa edo Antartikakoa dira gehien-tsu ikusten direnak.

Reunion irla da legatz bila joaten diren arrantzaleen abiapuntu garrantzitsuetakoa. Kanpoko arrantzaleek 30 urte daramatzate bertan legatza harrapatzen tretzaren bidez. Tretza sare luzea da, hainbat amu dituen —batetik bestera 1,20 metroko distantzia dagoela—, eta itsasontziaren atzeko aldean eta 500 metroko sakoneran kokatzen da.

Baina itsasontzietan dauden arrantzaleei itsasoko beste batzuk batu zaizkie: kaxaloteak eta orkak. Horiek tretzan harrapatuta dauden legatzak jaten dituzte, burua amuan utziz. Azken bost urteetan legatz-arrantzaren produkzioa erdira jaitsi omen da arrazoi horrengatik, eta horrek bultzatuta zientzialariek abian jarri dituzte arrantza-teknika berriak garatzeko ikerketak.

Aurten, ikerlariak eta arrantzaleak batera abiatuko dira itsasontzietan, eta hamaika sare berezi probatuko dituzte. Ea datorren urtearen hasieran kontatzen diguten emaitza.

Eta oinutsik lasterka egingo bagenu?

DANIEL LIEBERMAN ikerlariaren eta bere lantaldearen arabera, gizakiak, oinetakoak jarri zituenetik, korrika egiteko era aldatu zuen; edo hobe esanda, hanka lurrean jartzeko era aldatu zuen. Zapatekin korrika eginez hankaren orpoa da lurra lehenik ukitzen duena eta aldiz, oinutsik lasterka eginez gero behatza da lurrean lehenik jartzen dena. Ikerlariaren arabera, zapatak dituzten korrikalarien kasuan orpoak lurraren aurka egiten duen talka askoz ere indartsuagoa da, zapatarik gabeko korrikalariak hankaren aurreko aldearekin egiten dutenena baino.

Orpoko talkaren eragina txikiagotzeko zapatetan motelgailuak jartzen dira, baina halaz ere gure txorkatilek eta belaunek askoz tentsio handiagoa jasaten dute ortozik doazen Kenyako korrikalarien baino; gizarte aurreratueta jasaten ditugun muskuluetak hainbat arazo aipatutakoaren ondorioa izan daitezke.

Badirudi kirol marka ugari interesatu dela ikerketa honetan...



WWW.B1ENESTAR.COM

Sakelako telefonoak Alzheimer gaitzari aurre egiteko

Saguekin egindako zenbait probaren arabera, telefono eramangarriak igorritako uhin elektromagnetikoek, Alzheimer gaitzaren aurrean babesa eskaini ez ezik, gaitasunari atzera egitea eragin diezaiokete.

<http://ttiki.com/9886> (Gaztelaniaz)

Taula periodikoko elementuak imitatzen

Pennsylvaniako Unibertsitateko (AEB) ikerlari talde batek oinarritzko atomo batzuen arteko konbinazioak oinarritzko beste elementu batzuk atera daitezkeela frogatu du. Horrek ekar dezake elementu garestiak dituzten aplikazio ugariaren merkatzea.

<http://ttiki.com/9887> (Gaztelaniaz)

Itxuraz alda daitezkeen antenak

Urteen poderioz gero eta antena sofistikatuagoak egiten dira. AEBetako Carolinako Unibertsitatean bihurtu, luzatu eta okertu daitezkeen antenak aurkeztu dituzte. Aurkikuntza honen erabilera-eremua oso zabala izan daiteke.

<http://ttiki.com/9888> (Gaztelaniaz)



Zientziari buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua zientzia@argia.com helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Hustua

ARTOCARPUS ALTILIS, ogiondo edo ogi-arbolen fruitua, orrantzatutako ogigai ore a bailitzan, erre eta jaten da. Baita birrindu eta galletak eginda ere. Fruituarenak ez dira, berriz, arbolon etekin bakar-rak. Gure antipodako polinesiarrek ez zuten alfe-rrik etxekotu... Haren enborreko latex oparoarekin kola itsasgarriak, txoritarako biska, txikle a eta ira-gazkiak behintzat egiten dira eta beherakoa lehor-tzeko ere badarabilte. Egurraren zuntzarekin sokak eta lokarriak, arrantza-sareak etab. egiten dituzte, baina gerrian zintzilik daramatzaten tapa edo gona airoso tradizionalak egiteko gaia dutelako ezaguna-go da. Egurra bera erregai aproposa da, etxeko zurajerako eta zuraje arteko altzaritarako bezala.

Hainbeste mesede zekartzan arbola etxekotuko ez zuten bada? Asia hegoaldetik abiatu eta pixkana-ka Ozeano Bareko uharteak kolonizatu ahala ogiondoa landatzen zuten. Kolonizazioan ezinbes-tekoa zen arbola hau, jaten a, osasuna, jantzia eta lanabesak batean zeramatzana baitzen. Tartean kolonizaziorako lanabes nagusia, kanoa. Ogiondo-aren enborra baitzen kanoak egiteko gaia. Euskal Herrian haritzarekin egiten zen bezala, aizkoraz eta opatxurrez hustutako enborrak ziren gure lehenen-goetako ontziak, kanoa monoxiloak, alegia.

Garrazta, tantaia behar izan haritzak honelako ontzi bat emateko... Gerora Europako ontzi han-dienetakoak eraikitze ko arotz aurreratuenen tekni-kak izango zirenaren abiapuntua, enbor bat hustea. Baionako Euskal Museoan dugu jasoa ezagutzen den tankera honetako ontzi bakarra. Kaikua egite-



JAKOBA ERREKONDO

Kanoa monoxiloa Baionako Euskal Museoan.

ko urkia husten den era berean edo garai batean ogia egiteko oremahaiak bezala, enbor bat hustuz eraikitzen ziren ontzi hauek. Geurean bezala baita itsaso bareagoetan ere... hustzailea kaikua izan edo ez. Polinesiarrek ogiondoa daramaten eran, non ez dugu guk harro-harro haritza erakusten?

JAKOBA ERREKONDO



Neguko belarra

Garai batean, berdantzart bertantsu, negu luzean etxeko abereak elikatzeko, uda par-tean ugariak ziren bazkak ondu beste auke-rarik ez zen. Ondu hauekin metak edo zuha-tzak egin edo mandio, ganbara, borda, eilor eta abar betetzen ziren. Gero, ondu beharrik gabe belarra berdetan belar-zulotan silora-tzeko ohitura zabaldu zen. Zulo itxi hauetan belarrak irakin egiten zuen, hartzitu. Orain-go joera, zuloak bete beharrean gero hara eta hona mugitzeko errazagoak izango diren bolak egiten dira. Belar moztu berria plasti-ko itxi-itxian bildu eta belardian bertan utzi edo ukuilura hurbiltzen da. Gure paisaiaren historiako meta berriak. Meta beltzak, zuriak, berdeak...

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Leningradeko setioa eta Tolstoi

WWW.WIKIWAK.COM



LIFE



WWW.WORDPRESS.COM



LENINGRAD, 1941EKO IRAILAREN 1A. Artilleria naziaren lehen granadek hiria jo zuten. Astebete geroago lehorreko komunikazioa moztu zuten eta hilaren 15erako hiria erabat inguratua, setiatua zegoen. Hitlerrek hiria hartzea erabaki zuen lehenik, gune estrategikoa izateaz gain, garrantzi sinboliko handia zuelako. Baina hiria hartuz gero, alemaniarrek beren gain hartu beharko zuketen 3.000.000 biztanle hornitzea eta elikatzea. Hitlerrek pentsatu zuen askoz merkeagoa eta eraginkorragoa izango zela Leningradeko herritarrek goseak eta hotzak hiltzea.

Urte bereko azaroaren 20an, sobietarrek Ladoga ibaiaren zeharkatzen zuten pasabidea eraikitzea lortu zuten, hirian elikagaiak eta bestelako beharrezko materiala sartu ahal izateko. Biziaren Bidea esan zioten pasabideari, baina ibaiaren izotz geruza hauskorren eta alemaniarren erasoan menpe zegoenez, irtenbidea ez zen nahi bezain eraginkorra izan.

Hiriko usoak jan zituzten lehenik, ondoren katuak desagertu ziren Leningradeko kaleetatik

Ezkerretik eskuinera:
Lev Tolstoi idazlea;
Leningradeko emakumeak tanke nazien kontrako tranpak prestatzen;
eta Iosif Stalin buruzagi sobietarra.
Stalinek Tolstoiaren Gerra eta bakea lanaren 100.000 ale bidali zituen Leningradera, alemaniarrek hiria setiatu zutenean.

eta arratoi populazioak ere nabarmen egin zuen behera. Azkenean, antropofagiara jo behar izan zuten. Eta hala ere, hiriko biztanleek ohiko kaloria kopuruaren %10 baino ez zuten hartu setioaren lehenengo urtean. Lehen negu hura, gainera, bereziki gogorra izan zen eta hotzak milaka batzuk eraman zituen.

Stalinek (1878-1953), Bizitzaren Bidetik sartzen ziren jakiak eta erregaia nahikoak ez zirela jakitun, setiatuen arima elikatzea erabaki zuen: Lev Tolstoiaren (1828-1910) *Gerra eta bakea* lanaren 100.000 ale inprimatu eta Ladoga ibaiaren beste ertzera eramateko agindu zuen. Liburuak ezin ziren jan, eta su emanda ere ez zuten bero handirik ekarriko. Baina Tolstoiaren hitzek herriaren gerrarekin bat egiteko konpromisoa hartzen zuten gizakiak goraipatzen zituen.

Setioak ia 900 egun iraun zuen. Ofizialki 700.000 pertsona hil ziren, milioi eta erdi zenbait iturriare arabera. Eta azkenean Leningradek eutsi egin zion, literaturak horretan izan zuen garrantzia neurtu ezin daitekeen arren.

Arrastoak

Mahomari buruz, baina Mahoma agertu gabe

ALMOOR HOLDINGS Qatarreko talde mediatikoak 2011n Mahomari buruzko filma errodatzeko hasiko direla jakinarazi du. Ekoizlea Barrie Osborne ezaguna izango da, *Lord of the Rings* trilogian produkzio lanetan aritutako bera. Osbornen esanetan, ingelesez errodaturako duten lan honen helburua "kulturrak batzea"

da. Mahoma profeta (irudian) gutxitan irudikatua izaten da, musulmantzat iraingarria baita. Filmeko arduradunek ohitura hori errespetatzea erabaki dute, hau da, Mahoma bera ezingo dugu ikusi pantailan. Ez Almoorreko arduradunek ez ekoizleak, ez dute argitu oztopo hori nola gaindituko duten.



WWW.WORDPRESS.COM

Julen Zulaika

«Maputxeekin harremanak galarazi nahi ditu Txileko Gobernuak»

Zarautz, 1980. Ikastolen Elkartean ari da lanean. Bertsolaritza erakusten du Arabako ikastoletan. Askapeneko kidea da. Iazko udan Txilen egon zen, maputxe herriarekiko elkartasun lanetan. Asel Luzarraga euskal herritarraren atxiloketak bideratu gaitu berarengana.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Jose Ramón Gomez

Zein da zure esperientzia Askapeneko brigadista bezala?

Iazko uztailean lau lagun Txilera joan ginen hiru hilabeterako. Ni lehen aldiz, beste kideak lehenago egonak ziren. Maputxe herria ezagutzeko interes berezia nuen, baita euren bizimodua eta borroka ere. Maputxeen eta euskaldunen arteko nolabaiteko paralelismoa dago, biok ala biok nazio eta lurralde arazoa bizi dugu. Gure xedea hemengo egoera han azaltzea da, eta haiek guri berea. Euren bizimoduaz ikasitakoa hona ekartzen dugu. Joan-eto-rriko bidaia izaten da, internazionalismoa partekatze modua nolabait. Brigaden bidez

herrialdea ezagutzen dugu, maputxeekin bizi gara, eta babesa ematen diegu nolabait.

Ezin duzue berriz hara joan ordea. Zer dela eta?

Gulumapuko maputxeekin hogeit egunetan elkarbizitzen egon ginen, lau kideak komunitate ezberdinetan bananduta. Ondoren, Gulumaputik (Txile aldeko lurraldea) Puelmapura joan ginen (Argentina aldeko lurraldea). Hango komunitate maputxeekin ere lanean aritu ginen, gizarte eta kultur ekintzetan halaber. Artean, Txileko prentsak (*Mercurio*, *Austral*, *Segunda*, *Tercera*... *Mercurio* saltzen da gehien, Pinocheten aldekoa) albiste hau



zabaldu zuen: “Euskaldun batzuk maputxeekin gerrilla sortzen aritu dira, eta orain Argentinan dabilta”. Logistika militarra prestatzen ari ginela zioten. Polizia ohartarazi nahi zuten, baita giroa berotu ere. Txileko Barne ministroa hedabideetara atera zen “badakigu han daudela” esanez. Gure egonaldia aztertzen ari zirela eta adi zeudela gehitu zuen.

Puelmapun zineten orduan, Argentinako menpeko lurralde maputxean.

Hori da. “Hauek ba al dakite Argentina aldean gaudela?” esan genuen harrituta. “Gerrilla sortzen?”. Itzulerako hegazkina Txilen hartu behar genuen, Santiagon. Zailtasunak jarriko zizkigutela bagenekien, baina ezer egin ez genuenez, bada aurrera... Gure aurkako zertaz akusatzerik ez zegoenez, kontzientzia lasai genuen, “guk gerrilan aritzeko moduez ez dakigu ezer” genioen. Muga pasatzera gindoazela, Barilocheetik Txile aldera, Txileko poliziak (PDI) autobusetik jaitsarazi gintuen. Esan ziguten debekatua genuela Txilen sartzea. Gu debekuaren agiri ofizial bat nahi genuela esan genien. Haiek ezetz, guk bagenekiela zertan ari ginen. Argentinako eta Txileko estatuen mugaguneen artean utzi gintuzten. 40 kilometroko lur eremu abandonatuan, lurra behean eta zerua goian.

“Agerikoa da Txileko Estatuaren aldetiko kriminalizazio saiakera, maputxe herriak bizi duen egoera ezkutatzeko”

Nola atera zineten handik?

Autobus bat gelditu eta Argentinara bueltatu ginen. Barilocheen Txileko kontsulatura joan ginen gure kexa adieraztera, han ere tratu bera: “Zuek jakingo duzue zertan zabilatzaten”. Guk, berriz: “Zuek egiten ari omen garenaren frogarik ba al duzue?”. Azkenean, ez dakigu zein arauen 15. puntua haustea leporatu ziguten. Txileko nazio osotasunaren aurkako ez dakit zein jarduera burutu genuela. Egundo ez dugu jaso salaketarik, ez bide administratibotik inolako akusaziorik, ez ezer egin izanaren frogarik. Dagoen bakarra prentsak “saldu” zuena da, baina handik bota gintuzten.

Abenduan, berriz, Asel Luzarraga euskal herritarra atxilotua izan zen Txilen. Nola interpretatu duzue gertatua?

Luzarragaren atxilotetak ez du funts legalik, egin den moduak berak erakusten duenez. Asel abenduaren 31n atxilotu zuten, polizia bere etxera matzera joan zenean berak ez zuen bertan egoterik izan. Prozedura bera Txileko legearen kontra dago. Apli-

katu zioten Lege antiterrorista Pinocheten garaikoa da, ez dute oraindik kendu. Txilen trantsizioa egin bazen ere, beste leku askotan bezala, egoera ez da asko aldatu. Forma batzuk aldatu dira, gehiegi ere ez. Funtsean, Asel inkomunikatu zuten atxilotzeko arrazoiak berari adierazi gabe. Prentsaren bidez jakin zuen lau atentatu egitea leporatzen ziotela.

Zer balorazio politiko egiten duzue?

Agerikoa da Txileko Estatuaren aldetiko kriminalizazio saiakera dela maputxe herriak bizi duen egoera ezkutatzeko. Maputxe herriaren aurka egiten ari direnak ez dauka inolako justifikaziorik. Polizia komunitateetan sartzen da, jendea jipoitzen du. Umeak eta emakumeak bortxatzen dituzte, basakeriak egiten dituzte. Hiru maputxe hil dituzte dagoneko eta 40 preso politiko daude. Egoera hermetizatu nahi dute, eta kanpoko inor saiatzaren bada hori salatzera, bertatik botatzen dute. Brigadistak izan edo beste inor izan. Elena Varela txiletarra hiru hilabetez preso izan dute, maputxeei buruzko dokumental bat egiten ari zelako. Martxoan du epaiketa. Beste emakume italiar bat urtarrilean bota zuten Txiletik. Txileko Gobernuak maputxeek beste inorekin harremanak izatea galarazi nahi du. Elkartasuna eta internazionalismoaren aurka jotzen du gogor harremanak zapuzteko.

“Prensan euskaldunon kontra duten jarrera ikusita, bai Askapena bai euskaldun oro kriminalizatu nahi dute. Asel Luzarragaren atxiloteta medio, maputxeen eta euskaldunen arteko harremana moztu nahi dute”.



Prentsan euskaldunon kontra duten jarrera ikusita, bai Askapena bai euskaldun oro kriminalizatu nahi dituzte. Asel Luzarragaren atxiloketa medio, maputxeen eta euskaldunen arteko harremana moztu nahi dute.

Maputxeak biolentzia erabiltzeaz akusatzen ditu Txileko Gobernuak.

Ekintzak egiten dituzte, batzuetan bortitzak. Oraindik ez dute inor hil, ezta hiltzeko saiorik egin ere, autodefentsako biolentzia da. Gobernuaren enpresak lurak ustiatzera doazenean defenditzen dira. Polizia tiroka hasien denean beraiek ere defentsako indarra darabilte. Duela gutxi arte ez, baina orain erabaki dute erantzutea.

Coordinadora Arauco-Malleco (CAM) taldeari egozten zaio ekintzen egileta.

CAM 1980ko hamarkadan sortu zen eta lurak berreskuratzea dauka helburu. Talde armatua izan daiteke neurri batean, baina defentsan aritzen da betiere. Hala ere, CAM nazioarteko talde terrorista delakoen multzoan sartuta dago.

Prentsak CAM eta Askapena lotu ditu, eta Askapena ETari lotua dela esan ere.

Horrela egin dute. Guk gure praktika internazionalismoa lantzea dela diogu, besterik ez. Hau da, maputxe herriari elkartasuna adierazteaz batera haiengandik ikasi nahi dugula, eurek ere guregandik eta gure herriaren esperientziatik ikas dezaten. Guretzat ikastea lurrarekin duten harremanari buruz ikastea da, euren duintasuna berreskuratzeke daramaten bizitzaz ikastea. Gure asmoa euren prozesua gertutik ezagutzea da, hemen ezagutarazteko. Hori eta jasotzen duten errepresioa salatzea. Prentsak eta gobernuak esaten dutena besterik da, noski. Elkartasuna ez dela delitua salatu nahi dugu, eta maputxeei elkartasuna adierazten jarraituko dugu.

Txileko Gobernuaren jarreraren atzean zer dago, zure ustez?

Maputxeekiko ikuspegi zeharo arrazista, hasteko. Behin eta berriz historian errepikatzen dena. Gobernuak ez direla ezer egiteko gai egozten die maputxeei, eta kanpoko laguntza bilatzen dutela. ETaren laguntza

edo Kolonbiako FARCena. Txileko nahiz Argentinako gobernuak maputxeak alferrikak direla diote, ez dutela ezer erakusteko. Eta gezurra da. Badute zer erakutsia eta emana, eta guk badugu haiengandik zer ikasia. Jatorrizko herriak baztertuak daude, kanpoko kulturak inposatu zaizkie mendez mendez. Eurekiko jarrera arrazista ikartzeko modukoa da. Arrazismo horrek hainbat konnotazio dauka, egungo arrazismo-ekonomikoak eragin izugarria dauka mapu-

"Enpresen eta multinazionalen bitartez maputxeen lurra, ura eta zura diru iturri bihurtu dira gobernuentzat"

txeengan. Interes ekonomikoa eta arrazismoa, biak lotuta daude, iragan mendetako diskurtsoa bizirik dago. Mendebaldeko ikuspegi batetik, guk borroka antikapitalista aldarrikatzen dugu, maputxeek aldiz lehen borroka beren nortasunaren aldekoa dela diote, lehengo usadioetara itzultzea, eta horretarako elkartasun handia adierazten diote elkarri, lur komunalak lantzen edota auzo lanetan.

Zer ikasi duzu haiekiko harremanaz?

Maputxeen eta euskaldunen arteko paralelismoa hurbiletik ezagutu dut nazio arazoari dagokionean. Baina batez ere, maputxe herriaren borroka lurra berreskuratzeke borroka dela, duintasunezko borroka, beren duintasunaren alde borrokatzen

"Elkartasuna ez dela delitua salatu nahi dugu, eta maputxeei elkartasuna adierazten jarraituko dugu"

dutela zentzu guztietan. Oso bizi baldintza gogorretan ari direla ikusi eta ikasi dut. Lur gutxi dutela banatzeko euren artean, lurretik bizitzea zaila dela, jateko adina juxtu ateratzen dutela, eta halere, lurak ematen dienaz bizi direla.

Kontzientzia hori al dute denek?

Ez, denek ez. Batez ere komunitateetan bizi direnek. Hirietako elkarte

kulturaletan eta sozialetan ari direnek ere nazio kontzientzia dute, hizkuntza salbatzeko dihardute hauek. Hizkuntza galtzen ari da, berreskuratzen saiatzen dira, baina ikastetxerik ez dute. Maputxe hizkuntzaren ofizialtasuna lortzeko proiektuak badituzte, baina momentuz Txileko Gobernuak ez die onartzen hizkuntza irakastea, ezta herri izaera bera ere.

Zer mezu zabalduko zenuke zure esperientziatik?

Hango eta hemengo prentsa –Madrilgoa tarteko– boteretsuek "saltzen" dizkiguten berriak gezurrak direla, euskaldunoi buruzko gezur antzekoak dira funtsean. Guk ez dugu herrialde horietan dagoen zapalkuntzaz informatzeko bitartekorik, bada, pentsa maputxeek. Gainera, elkartasuna adieraztera joan garenean, maputxeak eta euskaldunok kriminalizatu gaituzte. Maputxe herria zapalduta dago, ekonomikoki eta kulturalki ustiatua Txilen nahiz Argentinan. Maputxeek ezin dute beren elkarbizitzarako eredu garatu, eredu kapitalista euren ereduaren aurka doalako. Enpresen eta multinazionalen ustiapen bitartez maputxeen lurra, ura, eta zura diru iturri bihurtu dira gobernuentzat. Maputxeak kriminalizatuak dira ustiatzaileek zapaltzen eta esplotatzen segi dezaten. Hitz bitan, estatu zapaltzaileek "maputxe herria lurraren jende ez izatea" helburua dute. Maputxe izenak lurraren jendea esan nahi du. *Mapu* lurra da eta *che* jendea.

Utopia bizirik da, zorionez.

Bai. Mendeetan egin zaienaren aurkako jarrera hartu nahi dute maputxeek, eta ez dira bide horretan dabil-tzan bakarrak. Estatubatuarren eta europarren ofentsibak indarrean segitu arren, Hego Ameriketara gero eta jatorrizko komunitate gehiago ari da euren eredu sozialaren aldeko borrokan, euren herrien duintasunaren alde. Honduras edota Kolonbiako jatorrizko komunitateen borroka da horren lekuko. Eurek izan nahi dutena erabaki nahi dute. Euskaldunok eskatzen dugun antzera, eurek ere herriak erabaki dezala aldarrikatzen dute. ■

Dibidenduak murrizteko unea?

Aurtengo udaberrian Mondragon euskal talde kooperatibistaren kongresua egingo da eta bertan, besteak beste, langile kooperatibistek taldean dituzten partaidetzengatik jasotzen dituzten dibidenduen edo interesen murrizketa erabaki beharko da. Hala dio barne dokumentu batek. Bestalde, Lagun Aro pentsio sistemaren erreforma eztabaidatzen ari da.

DANIEL UDALAITZ



JUANAN RUIZ / ARGAZKI PRESS

Bazkideen kapitalari %7,5eko interesa ezartzen zaio. Dibidendu hori murriztea eztabaidatuko dute hurrengo kongresuan.

MONDRAGON TALDE kooperatibista Euskal Herriko korporazio nagusietakoa da eta 90.000tik gora langile ditu mundu osoan. Horietatik 30.000 baino gehiago bazkideak dira eta une honetan talde horretan duten partaidetzarengatik jasotzen dituzten dibidenduen edo interesen murrizketari buruz eztabaidatzen ari dira. Halaber, KPIren igoeragatik bazkide kooperatibistari ematen zitzaion "plus" hori aldatzea ere proposatu da. Eztabaida iragan azaroan hasi zen eta 2010eko martxoan burutuko den kooperatibaren kongresuan amaituko da. Horixe dio

Mondragon Korporazioko Batzorde Iraunkorrek kongresuan parte hartuko duten kooperatibetako 650 ordezkariari bidalitako dokumentu batek. Halaber, Lagun Aroko mutualistak pentsio sistemari buruz eztabaidatzen ari dira eta martxoan egingo duten batzarrean hartuko dute gai horri buruzko erabakia.

Eztabaida hau talde honi ere eragiten dion krisialdi ekonomiko betean hasi bada ere, taldeko buruzagiek diote gai hauek ez dituztela mahai gainean jarri krisiaren aurkako neurri gisa. Hala ere, krisiaren aurkako neurriak lehenbailehen har-

tzeagatik nabarmendu da talde hau. Dagoeneko 2008ko amaieran hasi zen neurriak hartzen eta hala egiten jarraitu du 2009an ere. Hauek dira orain artean erabakitako neurriak: soldatak murriztea, aparteko ordain-sariei uko egitea, soldata beraren truke ordu gehiago lan egitea, aurretiko erretiroak aurreratzea eta abar.

Kapitalaren tratamenduaren arautze berria

Kongresuko ordezkariak jaso duten proposamena Mondragon Taldeko Batzorde Iraunkorrek prestatu du; batzorde hori 19 pertsonen osatzen

Lagun Arok pentsio sistema aldatu nahi du

Lagun Aro EPSVn bere pentsio sistemaren erreforma sakona proposatu du. Eta aurtengo martxoko batzar nagusian hartuko du erabakia. Aurreikusi dituzten aldaketek Lagun Aroren pentsio ereduari eragingo diote, baita bere pentsio sistema mistoaren alde publikoak duen pisuari ere. Erreforma proiektuak pentsio sistema egungo nahiz etorkizuneko erronketara egokitzeko du xede; erronken artean, kaudimena arautzeko legera egokitzea eta sistema publikotik datorren pentsioaren zatiaren eta Lagun Arok ematen duenaren artean oreka handiagoa lortzea nabarmentzen dira.

Berrikuntza nagusia, *TULankide* aldizkariaren arabera, pentsioen eguneratzea da. Hemendik aurrera, pentsio eskubideen eguneratzea entitatearen kaudimenarekin zuzenean lotuta egongo da. Asmoa da eguneratzea KPlan oinarrituta egitea, baina horretara-

ko entitatearen kaudimena bete behar da; hala, une jakin batean eguneratzea KPlaren arabera edo horren gainetik egin liteke eta, beste batean, egoeraren arabera, KPla ez litzateke bermatuko.

Sistema publikoari dagokionez, oreka berri bat lortu nahi da. Pentsio sistemaren zati publikoa osagai nagusia izango litzateke (%60), baina Lagun Aroren zatia garrantzitsua izango litzateke oraindik (%40). Orain artean, zati publikoak erretiro eta alarguntza kotizazioaren %33 hartzen zuen batez beste, eta Lagun Arok, %67.

Erreformak 2010. urtearen amaieran 50 urtez azpiko mutualistei eragingo lieke eta, noski, mutua-lista berriei. Horrez gain, 2010. urtearen amaieran 50 eta 60 urte bitartean dituztenei ere partzialki eragingo lieke.

dute eta kongresuetan lortutako akordioak bultzatzea eta horiek gauzatuko direla kontrolatzea du xede. Proposamena *Kapitalaren tratamenduaren arautze berria* izenburuko dokumentu batean jaso dute. Hainbat neurri aurreikusten dira bertan eta, onartuz gero, kooperatibistek talde kooperatiboan duten partaidetzagatik dibidendu gisa jasotzen dituzten diru-sarrerak murriztea ekarriko dute.

Neurri hauek ulertzeko talde honen ordainsari sistemak nola funtzionatzen duen jakitea komeni da. Lehenik eta behin kooperatibista ez diren 60.000tik gora langileen ordainsariak eta bazkide kooperatibistak diren 30.000 langileenak bereizi behar dira. Egun eztabaidatzen ari diren neurriek azken horiei eragingo liekete. 30.000 langile kooperatibista horiek kapitala dute Mondragon Taldean. Orain arte, kapital horri %7,5eko gehieneko interes tasa ezartzen zitzaion. Horixe jotzen da dibidendutzat. Interes edo dibidendu hori jasotzeko baldintza,

langileari dagokion kooperatibak mozkinak lortzea izan da beti.

Azken urteotan, Mondragon Taldeko zuzendaritza ordainsari hori murrizten saiatu da, unean uneko egoerara egokitzeko asmoz. Ez da gauza bera %7,5eko sari hori interes tasak gorago egon diren arrakasta garaietan ala diruaren prezioa %1 arte jaitsi den une honetan ordaintzea. Halaber, %7ra iritsi izan den Euribor erreferentea %1,250era jaitsi da. Horrez gain, egoera ekonomiko larriak Mondragon Taldeari ere eragingin dio.

Mondragon taldeko kongresua 2010eko martxoan egingo da eta egoera sozioekonomiko berrira egokitzea du xede

Hala ere, orain arte ezin izan du bazkideen kapitalarengatik ordainsaria murriztu, kooperatibistek neurriaren aurka egin dutelako. Murrizketa gauzatzeko saiakerak ere egin dira, baina ez dute aurrera egin Mon-

dragon Taldeko Batzorde Iraunkorreko zenbait kide kontra zeudelako.

%7,5era iristeko baldintzak gogortuko ditu proposamenak

Hala, Mondragon Taldeko bazkideak eztabaidatzen ari diren proposamenak orain arte jasotzen zen %7,5eko interesa zuzenean murriztea jasotzen du. Ezarriko litzatekeen formula nahiko malgua izango litzateke kooperatiba bakoitzarentzat. Baldintzak bete ahala, kooperatiba bakoitzak ezarri ahalko lukeen gehieneko interesa zehaztuko litzateke. Praktikan, %7,5 hori jasotzeko baldintzak gogortuko lirateke eta horrek, logikoki, portzentaje hori txikitzea ekarriko luke. Azkenik, dibidendua jasotzeko, taldeko kooperatiben eta taldearen beraren bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioa bermatu ahal izateko orain arteko baldintza berberei eutsiko litzazkie.

Horrez gain, langile kooperatibistek plus bat jasotzen dute, inflazioaren igoeraren eraginak berdintzeko. Egungo proposamenak plus hori bertan behera uztea ere jasotzen du. ■

Babeslea: Gaindegia



Euskal Herria, garapen jasangarriko unitatea
Euskal Herria Europako Batasuneko hego-mendebaldeko nazioa

Eragile ekonomiko eta sozialen sarea
Zatuz zu ere, EGIN ZAITEZ BAZKIDE. www.gaindegia.org

Gaindegia, Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategia
gaindegia@gaindegia.org • 943 304 365



Euskal Herria ekonomia eta gizarte garapenerako behategia
Organismoa sari eta diruak jasotzen ditu Euzko Legebiltzarrak
Finantzioa gaur eguneko erabakietatik bereizita dago

Urte eta erdiko hausnarketa abiatu da

Esana zuen euskara elkarten Topaguneak hausnarketa sakona abiatuko zuela. Hala, urtarrilaren 23an urte eta erdiko gogoeta prozesuari hasieran eman zieten euskara elkarteek Durangon (Bizkaia).

ONINTZA IRURETA

Argazkiak: Topagunea (CC-by-nc-sa)



Goizean lau hitzaldi izan ziren eta ondoren gogoeta tailerrak egin ziren euskara elkarteetako kideak taldeka banatuta.

EHUN BAT LAGUN, euskara elkarteetako langile eta boluntarioak, elkar-tu ziren Durangon euskara elkarten iraganaz, orainaz eta etorkizunaz gogoeta sakona egiteko. Egun osoko jarduna abiapuntu hartuta, Topagunearen asmoa da eskualdeka gogoeta bultzatzea eta ondoren berriz bat egitea.

Urliak esan zuen badirudiela berriro hasten garela hamar urtez behin, sandiak bota zuen agian euskara elkarten sorrera garaiko egoera berean gaudela. Etsipena? Nekea? Korridorean beste hau entzun zen: “Begira, halako etorri da, eta halako ere bai, eta... Seinale ona da hori, gaiari gogoz heltzeko ilusioa dagoen seinale”.

Goizean lau hizlari aritu ziren euskara elkarten iraganari errepa-soa emanez eta batez ere aurrera begira nondik jo pistak emanez.

Ondoren, euskara elkarteetako kideek taldeka astindua eman zieten orain arteko ibilbideari eta datorrenari.

Ondoko lerroetan hizlariak egin-dako gogoetak jaso ditugu.

Xamar: “Euskara salbatuta dago”

Juan Carlos Etxegoien, Xamar irakasleak ondoko gogoeta egin zuen: “Hizkuntza arazoa gizarte arazoa da, ezin dugu esan: ‘Guk –euskara taldeok– konponduko dugu hizkuntza gatazka’. Gaiaditzen gaituen problematika da, gizarte osoari dagokio. Gaur egungo sistemaren joera gizarte arazoak arazo pertsonal bilakatzea da eta mintzairarenean berdin gertatzen ari da. Ezin duzu euskaraz egin? Bada zure arazoa da, beti ere hor duzu euskara taldea lagunduko dizuna zerbitzuen bidez: mintzalaguna, komunikabi-

deak, kultur ekintzak... Hau guztia ongi dago, baina klubaren itxura hartzen ari da, sistemak bultzaturik: makramezaleak, pilates... eta euskararenak.

Bestalde, gugandik at dagoen zerbait salbatu nahian gabiltzala dirudi: Amazonia, baleak, Sahara... eta euskara. Baina euskara salbatuta dago, hiztegian eta gramatikan bilduta dago, aldiz, euskaraz bizi nahi duen komunitatea –Herria, nazioa alegia– da kinka larrian dagoena.

Motibazioari dagokionez, gogoa dut soldadutzan agirian jarri zidatena: *‘El valor se le supone’*. Euskara elkartei motibazioa *se les supone*”.

Juan Luis Arexolaleiba: “Lidergoa hartu edo bestela akuilu lana egin”

“Badago halako ezinegon bat, gain-behera sentsazioa, goia jo izanaren pertzepzioa. Nekea somatzen da

“Euskaraz bizitzea ez dago harrotasunaren erdigunean”

EEAK (EUSKARA ELKARTE ETA EUSKALDUNON ELKARTEAK) 25 URTEZ LANEAN. NON GAUDE ORAIN?

“Ez gara gure baitakoak: EEok bes-teen jardunaren orbitan gabilitza, gu autozentratu gabe. Esate baterako, euskaldunari harrotasuna abertzale izateak ematen dio oraindik eta ez euskaraz bizitzeak. Euskaraz bizitzea ez dago harrotasunaren erdigunean. Erdigunean batzokiak daude (kolore politiko guztietakoak) ez hiztunak. [Atarrabiako (Nafarroa) gazte batek hitzaldien ondorengo gogoeta talde-tako batean hala esan zuen: ‘Izorratzen nau instituzioetara jo eta euskaraz egin ezinak, baina berdin izorratzen nau ezkerreko eta abertzale direnen batzarrera joan eta gaztelaniaz egin beharrak’].

Autoestima lurretik daukagu: Ez dugu gure ahalmenetan sinesten, eta ondorioz, ez dugu berariazko begiradarik gureganatu.

Bigarren mailako herritarrak: Hitztun euskaldunok ukazioa bizi dugu, ez gara inon ageri, ez dugu ahots propiorik eta saiatu garenean isilaraziak izan gara. Herriak, hiritartasunak, lurraldeak... daukate lehentasuna. XXI. mendeko euskaldunok XX. mende hasierako emakumeen egoera bertsua bizi dugu.

Hutsari kolpeka: EEetan (euskalgintzan bezala) herria eta euskara moduko abstrakzioak izan dira erdigune, ez hiztuna. Ez gara gai izan hitzunari bere hizkuntza esperientziaren liseriketa egiteko baliabideak eskaintzeko.



Imanol Miner Errenteriako (Gipuzkoa) Lau Haizetara euskaldunon elkarteak kidea Durangoko hitzaldian.

DATOZEN 25 URTEETAN

✓ Hitztuna EEen jardueraren erdigu-nera ekarri behar da. Ingeleseko *empowerment* kontzeptuaren haritik, hiztuna begirada berriz jantzi behar da, osatzeko, askatzeko, autodeterminatu, ahaldundu edo jabetzeko eta lan hau EEek beregan hartu behar dute. Jarduera armatuaren desarmea kudeatzea tokatzen omen den garai honetan, hitzun euskaldunari armatzea tokatzen zaio, baina ez teknologia militarrekin, intelgentzia emozionala, Internet eta gisako beste teknologiekina baizik.

✓ Hitztuna subjektu politiko-kultural gisa aitortu behar da, hizkuntza komunitatea bera ere mugimendu politiko-kultural gisa berrantolatu, jabetutako hitzune-kin artikulazio lanak berrabiatuz. EEak herriko, auzoko, lantokiko euskaldunen elkargune eta ahots artikulatua izan behar du.

✓ Topagunea: euskaldunon nazio mailako ahotsa artikulatzen hasi behar du komunikazio lan apal baina eraginkorraren bidez.

EEen jardunerako eredu izan daitezke mugimendu feminista eta lesbiana, gay, bisexual eta transen LGBT mugimendua. Esate baterako, mugimendu feministari esker ikasi dugu jabetzea=*empowerment* kontzeptua eta erabat baliagarria zaigu hizkuntzaren eremuan”.

—esan zuen urte luzez Arrasate Euskaldun Dezagun euskara elkartearen aritutako Arexolaleibak—. Euskara elkarteek beren funtzioa bete dute, beharrezkoak ziren eta dira. Orain autokritika egiteko ordua da euskalgintzan. Lehengotik esperientzia hartu eta inertzia uzteko garaia da.

Euskara elkarteetan, akuilu lanean, behar besteko kemenik ez dut ikusten. Norbaitek egin behar du akuilu lana gizartean, euskalgintzan. Orain inork ez du taxuz egiten, inork ez darama herriko lider-

goa. Ez dakit nork egin behar duen, edo Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak, edo herri ekimenak, edo euskara elkarteak... baina norbaitek egin behar du. Euskara elkarteak lider izango ez badira ziurtatu behar dute norbait ari dela horretan.

Gauza praktikoetan bagara erreferenteak askotan: telebistak, irratia-
tiak..., baina teoriari heldu behar zaio. Euskara elkarteetan norabidea nork ezarri behar du? Txoferrak gidatu behar du autoa eta ez autoak gu. Elkarteak ezin du izan bitar-

tekari eta helburu, gizartean aritzeko gaude.

Elkarteetako boluntarioei buruz, nire lagun batek esaten duen moduan, ‘hamarretakorik gabe auzolanak etorkizunik ez!’ edo beste era batera esanda, gozatzeko aukera baldin badago, sufritzeko prest”. ■

www.argia.com/argia-astekaria
helbidean, euskara elkarteek gogoeta
luzea (LARRUN, 2.143. zbk, 2008-06-29).

Babeslea: Errenteriako Udala



Tel.: 943 44 96 13
euskara@errenteria.net



ERRETERIAKO UDALA



UDAL EUSKALTEGIA
Miguel Zabaleta 14. 20100 Errenteria
Tel.: 943 44 96 80 euskaltegi@errenteria.net

Bero-beroan

ONINTZA IRURETA

Bo hizkuntzaren azken hiztuna hil da

BOA 85 urterekin hil berri da. Emakume hori Indiako Andaman Irletan bizi zen eta andamanese handia etniakoa zen. Etnia horrek hamar hizkuntza biltzen zituen eta horietako bat zen bo hizkuntza. Andaman Irletan giza talde horretako 52 lagun baino ez dira bizi. 1858an, britainiarrek lurroko kolonizatu zituztenean, 5.000 lagun bizi ziren. Batzuk hil egin zituzten eta beste batzuk kolonizatzaileek ekarritako gaixotasunez hil ziren. Bo etniakoak 60.000 urtez bizi izan dira Andaman Irletan. Anvita Abbi hizkuntzalariak gertutik



Boa andrea, azkeneko bo hiztuna.

jarraitu du etnia horren desagertzea eta Boa zaharrarekin harremana zuen. Hizkuntzalariak esan izan duenez, Boa oso bakarrik sentitzen zen ez baitzeukan norekin hitz egin.

Boa andreak jarawa indigenak (uharteetako beste etnia bat) izan omen zituen gogoan eta Abbi hizkuntzalariari hala esan omen zion: “Jarawa indigenak zorionekoak dira kolonizatzaileengandik urrun, oihanean, bizi direlako”.

Ohorezko euskaltzain berriak

EUSKALTZAINDIAK hamaika ohorezko euskaltzain izendatu ditu: Xabier Lete, Ana Etxaide, Joxe Azurmendi, Joxemari Iriondo, Pakita Arregi, Gorka Aulestia, Luis Baraiazarra, Erramun Baxok, Martzel Etchehandy, Jose Angel Irigarai eta Joshua Fishman.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

BAHEA

Benito Fizek www.karrajua.org-en esanak Patxi Lopezek euskara ikas-teko zenbat diru gastatzen duen albistearen harira: “Ez naiz ultraliberal jarriko, ez. Izan ere, une honetan politikari batzuen klaseak ez ezik, beste hainbaten ere, gehienenak, neurri batean edo bestean diru publikotik ordaintzen dira, eta hala izan behar da seguru-erik. Adibidez, euskaltegi bateko ikasle batek kasu gehienetan kostuaren erdia izango du ordainduta diru-laguntzen bidez. Baina horixe da kontua, ‘erdia’, ez ‘dena’.

Duela hilabete batzuk ikasle batzuekin kalkuluak egiten jarri ginen. Zenbat diru gastatu duen bakoitzak euskara ikasten. Eta diru-laguntzak kenduta ere batzuen kasuan –euskaltegia, barnetegia eta abarren artean– 4.000 eurotik gorako kopuruak irteten ziren, euren poltsikotik irtenda alegia.

Euskara ikastea doakoa izan behar dela esaten zen aspaldian, eta esaten jarraitu da, gero eta apalago entzun izan da hala ere. Badirudi batzuek eskubide hori eureganatu dutela ia nahigabea, baina guz-tiengana ez da oraindino heldu”.

TALAIAN

Gizartearen eta langileen kontrako erreformak

Hego Euskal Herriko herritarrak, soberania politiko eta ekonomikorik ez dutenez, PSOE eta Espainiako Gobernuak zuzendutako langileen eta gizartearen kontrako ofentsiba jasaten ari dira; patronalaren, Bankaren, Nazioarteko Diru Funtsaren (NDF) eta Ekonomia Lankidetzaren eta Garapenerako Antolakundearen zerbitzura dagoen ofentsiba, bestalde. Iragarri diren erreformek –jubilazioa 67 urtera atzeratzea, pentsioen erreforma, lan arlokoa...– erakunde horien exijentziei erantzuten die. Eta erreforma horiek jasango dituztenak ez dira bankariak, ez eta enpresariak edo nazioarteko buruzagiak ere. Beraiek ez dute jubilaziorik behar, badi-tuztelako euren soldata eta milioitako pentsio plan pribatuak. Sufrituko dutenak langileak eta gainerako herritarrak dira, soldata aski murriztekin bizi diren horietatik. Gainera, NDFren azken “aholkua” arabera soldata horiek gehiago murriztu beharko lirateke. Horregatik, aurkezturiko erre-formak gizartearen eta langileen kontrakoak dira. Eta larriena da, erre-formak “sozialista” dela esan baina kapitalismo basatiaren “errezetak” bere egin dituen Gobernu batetik etorri direla.

Euskal Herriak ez du soberania politiko eta ekonomikorik erabakitze-ko, besteak beste, bere sistema produktiboaz, lan ereduaz, lan harremanez, jubilazioaz edo pentsioez. Horregatik dago gai funtsezkoetan Espainiako eta Frantziako Gobernuen menpe. Herritarrek egoera hobean lan egin eta pentsio eta jubilazio duinago eta justuagoak izango lituzkete, baldin eta gobernu propioa eta antikapitalista edukiko balute, Euskal Herriko langi-leen eta herri sektoreen zerbitzura. Espainiako eta Frantziako Gobernu-ek euskaldunei aurrean jarri diguten atakak Euskal Herri libre, justu eta soli-darioagoaren alde lan egin eta borrokatzeko ukiulua izan beharko luke.

Juan Mari Arregi

2010, benetako krisiaren hasiera

PEDRO SOLBES Espainiako Gobernuko Ekonomia lehendakariordea 2008ko irailaren bukaeran, hau da, duela urte t'erdi: "Espainiako ekonomia indarrari esker eta Gobernuak hartu dituen neurriei esker, datorren urtearen erdialdera hasiko da gainditzeko krisia Espainia". Espainiako administrazioen zor publikoa bi puntu hasiko zela iragarri zuen Solbesek, horrela BPGaren %38,8ra iritsiz, baina horregatik lasai egoteko gaineratu zuen, Europako beste herrialde batzuen aldeira, Espainia oso eroso zegoela.

2009ko maiatzaren 2an, esate batera, Espainiako egunkari gehien titulu eta albiste garrantzitsuen izan zen langabezia datuen beherakadari buruzkoa. *El Diario Vasco*ren paragrafo batek honakoa zioen, adibidez: "Epe ertainera, honek ez du ekarriko enpleguaren hazkundera, baina krisiaren larriena iragan da, zenbait adituren esanetan".

Jose Luis Rodríguez Zapaterok 2009ko azken Ministro Kontseiluko bileraren ondoren: "2010ean langabeziak jarraituko duela aurreikusten du Gobernuak, baina enplegu galera jaitxi egingo da eta urtearen amaieran ekonomia suspertzen hasiko da, geldo baina suspertzen".

AEBetako 2008ko finantza krisiaren ondoren zenbatetan entzun behar izan genuen lasai egoteko Espainiako ekonomia sendo zegoela eta krisiak eragina zuela, baina beste estatu askotan baino askoz gutxiago. Hemeroteka gisa hauetako adierazpenez josia dago.

Eta gauetik goizera, Davoseko bilkuraren ondoren, 2010eko hasieran Espainiako egoera ekonomikoa porrotaren atarian agertu zaio iritzi publikoari: urtarrilaren amaieran %18,8ko langabezi tasa eta 2010



eta 2011n langabeziak 1994ko %25a gaindi dezakeen iragarpena. Europako Batasunaren 2009ko bukaerako langabezi tasa %9,6koa zen.

Luze jarrai liteke Espainiako egungo egoera ekonomikoko larriaren inguruko datuekin, baina gainera egoera asko larrituko bide da. Lehenxeago ikusi dugu agintariekin iragarpen baikorretarako duten joera automatikoa, noizean behin ezinbestekoa da irudia hobetu eta boto iragarpenean eragiteko. Ondoren dator errealitatea, denon begien aurrean ikusgai, eta orduan, egoera txarraz gain, ekonomia neurri gogorak iragartzen dira.

Hemeroteka agintarien halako jokaldiez josia badago, ekonomialari asko aspalditik ari dira iragartzen orain gertatzen ari dena eta, gainera, etorkizuna askoz laino beltzagoez marrazten dute. Santiago Niño Becerra da ekonomialari horietakoa: 2010eko "crash" a. *Krisiari buruzkoa egia osoa*. Orainsu elkarriketa bat egin diote Espainiako *Diagonal* aldizkarian eta hara zer dioten datorrenaz:

"Krisiaren latzena, nire ustez, 2010aren erdialdera gertatuko da, une horretan hasiko da mundu mailako ekonomia benetako gainbehera –2011 estrukturaliki 1930aren gisakoa izango da—. Erorketa honek 2012ra arte iraun dezake eta une horretan hiru bat urte iraun dezakeen geldialdia hasi daiteke; garai honetan estrategia berriak zehaztu beharko dira. 2015etik aurrera suspertze geldoa, 2020ra arte. Gaurtik hasita hamar urte, Depresio Handian bezala".

Orain tortilla nola irauli da kontua eta hor errezetak ezagunak dira: lan merkatuaren malgutasuna, finantza neurri gogorak eta gastu publikoaren murrizketa handia. Jose Luis Rodríguez Zapatero hasi da neurriak iragartzen, ezagunenak pentsioa eta erretiro adinarena. Etor-kizunean ez ei da dirurik izango eta une honetatik aurrera hasi behar ei da egoerari aurre egiten.

Erretiroa atzeratzeko gogorik ez da falta, baina usainak dio iragarpen hau gehiago dagoela lotua pentsio sistemaren eremuan egin nahi diren doikuntzekin. Usainak dio langile eta herritar xumeenei mesederik egingo ez dien erreformak abian direla jada eta Espainian gobernu, sindikatu eta enpresari ordezkariek bidea errazten ari direla jada.

Hego Euskal Herrian bada beste esperientziarik, ordea, iazko maiatzaren 21eko greba orokorrak erakutsi zuen gisan. ELA eta LAB buru, gehiengo sindikalak argi erakutsi zuen egungo krisi egoerari erantzuteko mobilizazioa funtsezkoa dela. Egoera datorren moduan, denak adierazten du datozen hila-beteetan berriz ikusiko direla Euskal Herriko kaleetan iazko maiatzeko irudiak.

Net Hurbil

PELLO ZUBIRIA

Mexikoko La Glorian jendeek eta zerriek gripea hazten darraite

Iazko udaberrian gripearen jatorriaz eta arrisku mailaz eztabaidatu zen. Hilabeteotan soilik interesatzen da ea osasun agintariek esajeratu egin zuten lanjerra bakuna gehiago saltzeko. Bitartean, Mexikoko La Glorian zerriek eta herritarrek kirats artean gaixotzen segitzen dute.

MUNDUKO HEDABIDE HANDIENAK joan den apirilean Perote bailarako La Gloriaraino heldu ziren, Mexikoko Veracruz estatuan. Agintariek xuxen leku hura jo zuten H1N1 gripe berriaren sorlekutzat eta Edgar Hernandez mutikoa izendatu "0 eria". Kazetari eta aditu askok erakutsi zuen gero zer nolako giro ustelduan bizi ziren inguru haietako biztanleak.

Ustel usain fisikoa da Smithfields okela korporazioaren filiala den Granjas Carroll-en zerritegi erraldoiek inguru guztiari erasten diotena, kontrolik gabeko zimauregi eta guzti. Baina bestelako kiratsa ere aurkitu zuten kazetariak Peroten: hilabete luzeetan bertako herritarrek egindako kexu eta mobilizazioak zanpatzeko Mexikoko agintariek erakutsi duten lotsa-gabekeriarena.

Mundu osoarentzako pandemia gerta zitekeen H1N1 birus berriaren sorrera informazioek egotzi zioten zerrien hazkuntza industriari. Alegia, abereak asko-azkar gizentzeko presaz antibiotiko, hormona eta klase guztietako botikaz bazkatuz granja erraldoietan pilatuta edukitzean ukuiluok bakterio eta birusentzako laborategi bihurtu zituztela eta hor sortutako xomorro berriek gizakietara jausi egitea denbora kontua baizik ez zela.

2009ko udaberriko alarmaren beroan, industriaren jabeek ukatu egin zuten beren zerriek H1N1 berriarekin zerikusirik zutenik, baina azkenean onartu zuten Mexikoko agintariek konpromiso batzuk sinatzea, granjetako osasun egoera zorrotzago kontrolatzeko.

Hilabeteak pasa dira, H1N1 edo A gripe kontzeptuek ahaztarazi egin dute "zerrien gripea"... Eta, aldiz, Mexikoko La Glorian, alarma eragin zuen zero gunean, deus ez da aldatu, ez bada okerrera. Xehetasun berriak GRAINk eman ditu, nekazari txikiak eta elikadurazko burujabetasunaren alde ari direnak sustatzen dituen erakunde ezagunak.

GRAINek salatu du Munduko Osasun Erakundeak alboratu zuenetik "zerrien gripea" kontzeptua, alde askotako presioengatik, komunikabide handiek ahaztu egin dutela pista hori haien ikerketetan. "Gaur egun -dio GRAINen agiriak- munduan zehar haragi enpresa handiak lehen bezala ari dira, haien granjetan gertatutako H1N1 edo bestelako gripeen berri inori eman beharrik ez daukate". Eta Mexikoko gobernuak ahaztu egin ditu iaz hartutako erabakiak.

Herritarrek segitzen dute mobilizatzen. Joan den azaroan Mexiko osotik heldu zen jendea Perote bailarara, *Asamblea Nacional de Afectados*

RTS telebistaren irudian Don Vicente eta Don Ruben Chichicuatl herriko ordezkariak erakusten dute Granjas Carrollek inguruetan daukan 105 granjetako bat. Aurrean daukaten "oxidatze putzuak" biltzen ditu eginkariak. Hamar metroko sakonerarekin, inpermeabilizatu gabe dago eta bost metro beherago daukan geruza freatikoa kutsatzen du, inguruko herritarrek edaten duten ura alegia. XX. mende hasieran Mexikoko Iraultzak nekazariei betirako emandako lurrak 1994ko liberalizazioarekin multinazionalen eskutara pasatu dira; jatorrizko baserritarrek dena salduta hiriburura doaz ihesi. Zerrientzako janaria, botikak, dena urrunetik ekarri ondoren, haragia AEBetara daramate. Bertan ez dute uzten artatu gabeko kutsadura baizik.

Ambientales erakundearen bosgarren biltzarra burutzera. Perote haraneko herritarren borroka lotu dute Mexiko osoan abelazkuntza industrialia eragiten ari den triskantzekin, ekonomian bezala ingurumenean azken urteotan -Kanada, AEB eta Mexiko arteko merkataritza erabat liberalizatu zenetik-. Mobilizazio horien berririk ez da jakin Europa alde honetan.

Zorte apur batekin, Europan eta oro har munduan burrunba handiago zabaltzen ahal du *Television Suisse Romande* (TSR) kateak egin duen dokumentalak. *H1N1: Pour quoi c'est tombé sur les Mexicains?* (H1N1: Zergatik egokitu zaie mexikarrei?) 43 minutuko erreportajea GRAINen webgunetik bezala YouTube zerbitzutik iritsita oraingoz ingelesez edo frantsesez ikus daiteke, eta laster baterako iragarri dute gaztelaniazko bertsioa.

Beldurraren usaina

TSRko erreportajeak hiru galderontzako erantzunak bilatu ditu Mexikora joanik: Nola sortu da birus hau? Zergatik Mexikon? Urtero gertatuko ote zaigu aurrerantzean?

Mexikoko Unibertsitate Autonomoko ekonomia irakasle batek, Octavio Rosas Landak, gidatu ditu TSRko kazetariak pandemiaren epizentrora, hiriburutik Jalaparako



ausartu TSRko kameraren aurrean azaltzen.

Chichicutla herrian zorte hobeia izan dute. Don Vicentek eta Don Rubenek kameraren aurrean erakusten dituzte milaka zerrien kaka-pixak aire librean pilatzen diren putzuak, gaixotasunak hil zerriak inolako neurririk gabe lagatzen diren biltegiak... Goragalea eragiteko moduko kiratsaz gain, inguru osoko edateko ur guztia pozonduta dago honez gero.

Baina erreportajearen are ustel usain handiagoa darie Mexikoko agintariei eta Munduko Osasunaren Erakundekoei. Lehenek, ukatu egiten dute griperik dagoenik herritarren edo zerrien artean; Jose Angel Cordoba ministroaren hipokrisiak min egiten du. Bigarrenek diote uste dutela ezetz baina fidatu behar dutela agintari mexikarren informazioez.

Herritarrak gaixotasunen beldurrez bizi dira. Eta hitz egiteko beldurrez. Medikuek berek ez dute komunikabideekin hitz egin nahi. Bakar batek onartu du TSRkoek elkarriketatzea, aurpegirik ez erakusteko baldintzaz. "Guregana datozen gaixoen %80 arnasbideetako gaixotasunez eta neumonia atipikoz dator: bronkoneumoniak. H1N1 epidemiaren ezaugarri guztiak ditu. Hemen ez daukagu hitz egiteko eskubiderik, bestela lana galdu dezakegu... edo bizia ere bai, zergatik ez aitortu?"

Hurrengo epidemia baliteke pasa berria den H1N1ek sortu duenetik ezberdina izatea. Baina oso posible da hurrengo ere La Gloriako zerri granjak bezalako batzuetatik ihes eginda zabaltzea. ■

kamioa hartu eta autoz lau ordutan iristen den Perotera. Granjas Carrollek La Glorian dituen zerritegi erraldoiak haren eskutik ezagutuko ditu bideoan bisitari birtualak.

Hegaztien, gizakien eta zerrien gripeen geneak biltzen dituen H1N1 mutantea eta Granjas Carrollek parajeotara ekarri duen mutazio ekonomiko eta soziala elkarri lotuta doaz. Irudietan ageri den pabilioietako bakoitzean 18.000 zerri bizi dira pilaturik, zerritegi osoan ia 100.000. Urtean 400.000 pasako dira bertatik.

Rosas Landa irakasleak zifra ofizialak erabiliz 65 granja erraldoi zenbatu zituen Mexikoko eskualde horretan, baina herritarren informazioak jasota ohartu da 105 badi-

rela. Kontuak eginez gero, 5-6 milioi zerri bizi dira Nafarroaren tamainako eremu batean. Urdeotako bakoitzak gizaki baten zortzi halako zimaarki sortzen duenez, 40 milioi pertsonak eragindako kutsaduraren tamainaz ari gara.


Zerri haragia AEBetarako, mexikarrentzako zerrikeria

Aspalditik La Gloria bezalako herrietan era askotako mobilizazioak egin dituzte bizi ezinezko kutsadura salatzeke, granja berri bat eraikitzen hasi diren bakoitzean irten dira kalera. Baina ezer ez lortzeaz gain, errepresioz erantzun zaie. Eta beldurra sumatzen da herritarren artean. Rosas Landa irakasle ezagunarekin joanda ere, ia inor ez da



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624 · zinkunegi@euskalnet.net



Zerbitzua
Kalitatea
Garantia



Kike Diez de Ultzurrun Sagalá

Manifestazioa

Irakurleak artikulu hau irakurtzen duenerako, erabakia hartua izanen da. Erran nahi baita, okerrik ezean, udaberrian izanen da nafar jende euskaltzaleen kale-agerraldia; heldu den maiatzean, zehazki. Manifestazioa, Nafarroako Gobernutik, edo hobe erran, Nafarroa ofizialetik, etorritako eraso-erauntsiari tamainako erantzuna emateko. Zalantzak izan dira, ez gutxi, erantzunaren nolakoaz. Zer egin, nola, nork deitua? Nafarroan bakarrik ala gainontzeko herrialdeekin batera? Egiteko-tan, noiz? Orain? Udazkenean? Baina, azkenean, egin egingen da. Nik, behintzat, duela zortzi bat urteko erantzuna daukat gogoan eta gogoko, eta huraxe hartuko nuke eredutako; Oinarriak izeneko ekimenak nafar alkateekin batera deitutako huraxe, hain zuzen ere: jendetsua eta txukuna, azalez eta mamiz. Del Burgok berak ez zuen tamainako erantzunik espero, ezta hurrik emanda ere, eta etxe-ko leiho azpitik jendeketa hura igarotzen ikusterakoan, zirt-zart, telefonoa hartu, Iruñeko EFE agentziako egoitzara deitu eta ohiko larderiak euskararen inguruko adierazpenak egin nahi zituela esan zien, manifestazioak sortutako oihartzunari aurre egiteko. Azken buruan, politikari eskuindarra harritua zegoen manifestazioaren zenbatekoaz eta nolakoaz. Izan ere, jendetza handia bildu zen, ahalegin berezia egin zen irudi eta mezuetan, hizkuntza politikako hiru zuzendari ohiek ere atxikimendua emana zuten, izen handiko jende aunitzek bezala; baina, batez ere, han kaleko herritarrak elgarretaratu ziren. Han zegoen, konparazio batera, Nafarroa Oinez-era eta Takonerako Sortzen-Ikasbatuaren jaira joaten den jendea eta, oraingo honetan ere, halaxe beharko luke.

Hasteko eta bat, Nafarroa Garaiko gizarteari zuzendutako deialdia egin beharko litzateke; Euskal Herri osoko ekimena egitea ere ez da sekula sobra izaten, baina lehendabiziko hau, behintzat, bego Nafarroan. Eta ni, behinik behin, oinarri-oinarrizkoena aldarrikatzen hasiko nintzateke: hots, pertsona izate hutsagatik dagozkigun eskubideak,




JOSU SANTESTEBAN

hemen duintasunez bizitzeko eskubidea, bazterkeriarik sufritu gabe bizitzeko eskubidea; eta horrekin batera, Pamplona-ren ondoan Iruñea jarrita ikusteko eskubidea (letra molde eta tamaina berean, gainera). Irrati-dialean, Euskalerria Irratia hartzeko eskubidea; Beriainen, Mañerun, Ziraukin edo Cortesen seme-alabak euskaraz matrikulatzeko dugun eskubidea: hitz batez, arnasa hartzeko eskubidea. Izan ere, itolarria sekulakoa baita, Nafarroako Haur Kantari Txapelketa bera ere sosik gabe utzi dute, dirurik gabe utzi dituzten bezala herri-telebistak, aldizkariak, euskara ikasteko laguntzak, AEK eta IKA, udaletako euskara zerbitzuak. Hori guztia, UPNk erabakita, baina PSNk lagunduta. Gu, gai-

«
Oinarri-oinarrizkoena aldarrikatzen hasiko nintzateke: pertsona izate hutsagatik dagozkigun eskubideak, hemen duintasunez bizitzeko eskubidea, bazterkeriarik sufritu gabe bizitzeko eskubidea; eta horrekin batera, Pamplona-ren ondoan Iruñea jarrita ikusteko eskubidea. Irrati-dialean, Euskalerria Irratia hartzeko eskubidea; Beriainen, Mañerun, Ziraukin edo Cortesen seme-alabak euskaraz matrikulatzeko dugun eskubidea: hitz batez, arnasa hartzeko eskubidea.
»

nera, gizarte honetako herritarrak gara, zergak ordaintzen ditugu, gizarte hau aurrera eramaten ere lagundu dugu eta, ordainez, hutsaren hurrengoa jasotzen dugu. Hortaz, oraingo honetan, helburuak ahalik eta jende gehiena biltzea izan beharko luke, eta ahalegin berezia egin, goiburu, mezu, irudi eta bitartekoetan. Eta aldi berean, denok laguntza eman beharko genuke, ateak zabalik baitaude. Ea ba udaberri honetako deialdian Del Burgo berriz ere zur eta lur uzten dugun erantzunaren zenbatekoaz eta nolakoaz. ■

ASTE HONETAKO zozketak




Ugarte Nekazal Turismoa

Asteburu pasa
2 lagunentzat

Asteasu GIPUZKOA
www.caseriougarte.com

1



Chillida-Leku Museoa

3 harpidedunentzat
bina sarrera

Jauregi auzoa, 66
Hernani, GIPUZKOA

www.museochillidaleku.com

2



Zientziaren kutxagunea

4 harpideentzat
bina sarrera

ikeletegi, 43 - 20009 ñ
Donostia - San Sebastián

www.miramon.org

3



Kemen Lertxundi Begi berriak gaueko irudientzat

3 CD opari

Soraluze GIPUZKOA

www.hotsak.com

4



“Txoriak txori” lamina eta Gartxot komikia

2 produktu sorta opari

www.argia.com/denda

5

AURREKO ASTEKO IRABAZLEAK

URTEAGENDA 2010

- Maddalen San Miguel Otegi (Zaldibia)
- Aitor Goia Escudero (Lizarra)
- Jose Anjel Antxia Bolinaga (Aretxabaleta)
- Marixabel Garitagoitia Zabala (Ermua)

EGUTEGIA 2010

- Lore Agirrezabal Pertusa (Tolosa)
- Miren Garcia Dalmau (Hernani)
- ORKLI S.COOP. (Ordizia)
- Fernando Bustillo Maestro (Donostia)
- Teodora Nazabal Etxeberria (Zaldibia)

ZIZTADAK

- Zaldibarko Udal Liburutegia (Zaldibar)
- Joseba Berriozabal Urkiza (Zumaia)

ARBELAITS JATETXEA

- Jose Antonio De La Hoz Uranga (Donostia)

NORMAN

- Iñaki Zipitria Urkizu (Lezo)
- Isabel Razkin Lizarraga (Uhart-Arakil)
- Iñaki Iturain Azpiroz (Orio)

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com • www.argia.com/gunea

galdera-erantzun bidezko

mahai-jolasa

badakit

35 euro

ARGIAren harpidedunek

%15eko deskontua

FORMATU BERRIA

Ludi**toys** 

Eskaerak: 943 36 86 61

info@luditoys.com

www.luditoys.com

DVD

